

Juan Garmendia Larrañaga

Gipuzkoako Aia herria:

Altzola eta Laurgain auzunetako giza
urratsa



46



1991. Gipuzkoako Aia herria : Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa / Juan Garmendia Larrañaga ; itzulpena Jone Tapia – Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991

1998. Villa guipuzcoana de Aia. La huella humana en los barrios de Altzola y Laurgain = Gipuzkoako Aia herria : Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa / Juan Garmendia Larrañaga ; itzulpena Jone Tapia. – En : *Historia*. – (Euskal Herria. Etnografia. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 7) – Donostia : Haranburu Editor, 1998. – Castellano, euskera

2007

Gipuzkoako Aia herria: Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa / Juan Garmendia Larrañaga ; itzulpena Jone Tapia ; laminak Juan Luis Mendizabal "Mendi". – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 98 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 46). – ISBN : 978-84-8419-109-4. – Egilearen bilobak, Irma eta Elisabet-i eskainitako edizioa.

Gure esker ona emandako laguntzagatik ondokoei:

Juan Antonio Garmendia Elósegui
Jesús María Irazusta
Agurtzane Iztueta

Itzulpena:

Jone Tapia

Laminak:

Juan Luis Mendizabal, "Mendi" (Cedidas por Juan Antonio Garmendia Elósegui)

Argazkiak:

Archivo Fotográfico-Fototeca de la Caja Gipuzkoa San Sebastián KUTXA
Álbum fotográfico descriptivo del País Vascongado. Ed. de Rafael Picavea. San Sebastián, 1915
Guipuzkoa begiragarria. Lo admirable de Guipúzcoa. Pascual Marín. Foto y huecograbado Arte, Bilbao, 1932
Casas y Linajes de Echave y Laurcain. Conde de Urquijo. Vols. I y II. Nueva Editorial S.A. San Sebastián, 1932
Xabier Zabala

1. edizioaren arduraduna:

Xabier Zabala



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Gipuzkoako Aia herria. Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak	
Sarrera antzera	3
Laurgaineko sakristau eta seroraren betebeharrak eta eskubi- deak	7
Betebeharrak	7
Eskubideak	8
Laurgaingo baserria	9
Burdinolatza zer bait	11
Amarrenak eta primizik	15
Nekazari munduko bizimodua	19
Altzolako <i>mutil-ardoa</i> elkarteak	21
Altzolan, San Roman jaia	23
Udazken eta neguko langintza	27
Ume jokuak	33
Eguberri	35
Laurgainen, maiordomoa izendatzea	37
Kandelaria eguna	41
San Blas	43
Santa Ageda bezpera	45
Karnabal	47
Udaberri-udara	49
Karobia eta ipuia	51
Hargin baten itune	55

Aste Santua eta Bazkoa	59
Zozomikoteak	61
San Markosen jaia eta konjurua	63
Santa Kruz eguna	65
Elurzuloak	67
Gorpuzti eguna	69
San Juan	71
Altzolan, Amabirjina Errosarioko kofradia	73
Sendagintza herrikoa	75
San Paulo eguneko errogatiba	77
Errotak	79
Laurgainen, mutil-ardoaren elkarte eta Andra Mariaren jaiotzea	81
San Migel jaia	83
Laurgainen, neska gazteen jaia	87
Heriotzaren inguruko ohiturak	89
Apendizea. Laurgaingo «San Antonio» Hermandadeko arautegia. Aia	93

Sarrera antzera

Izenburuari erantzun eman nahiez, nire lehen pausoak Altzola bailarara bideratu ditut. Horretarako Laurgainetik abiatu eta bideska polit eta historiaz eta kondairaz kutsaturiko guneetatik igaro naiz. Bide honetan, zenbaitetan harritsu eta aldapatsu eta zenbaitetan zuhaitzaren zainez betea, handikiro agertzen diren eta beren izate urtetsua izkutaekin duten pagoen agurra jaso dugu.

Gaur egun Foru Aldundiak berritua eta arreta handiz zaintzen duen eskola umeen egoitza den *Amezketalardira* desbideratu gara. Izen hau Amezketa eta Lardizabal abizenen elkarketatik letorkioke, antzinatean baserri eta orube noblea izana.

Aldapa bat eta langa bat igaro eta Altzolara iritsi gara; erdi erorian dauden *Nevera* baserriaren hormak atzean utzi eta handik oso urrun ez dauden elurzuloak begiztatu ditugu.

Aurrera bidean, gailurrean herri debozio eta mendizaleen suspergarri izan den gurutze ikusgarria duela, Pagoeta mendiaren magal zabalean agin ugari artetikaurrera egin dugu.

Gure eskuinetara Aizarnako (Zestoa) kondaira ederreko Santa Engrazi ermita dugu. Zoko batean, atzean utzi ditugu *Soregain* baserriaren hondakinak eta San Romani eskainiriko auzoko parroki elizara inguratu gara. Beroren eskuinetara, pilotalekua tarteko dutela, *Apaiz Etxea*, beti hutsik eza-gutu dugun eraikuntza; eliz atzean, gertu, izenarekin, *Moja-Etxe*, zerrikusirik ez duen baserri-taberna daude¹.

Hogei bat minututako ibilaldi atseginaren ondoren *Arriarte* baserria dugu. Bertatik ikusta ditzakegu aipaturiko Santa Engrazi ermita, Errezilgo Erdoizta

1. Gorosabelek dio: 1618an, bailara honetan Hirutasun Donearen emakume komentu bat sortu zela eta hurrengo urtean Zarautzera joan zirela. Pablo de Gorosabel: *Diccionario Histórico Geográfico de Guipúzcoa*, 1862. Tolosa, 74. orri.

bailara eta *Ernio*, *Aitzkorri* eta *Izarraitz* mendiak. Arriarte baserri horretantxe aurkitu dut Altzolako giza urratsa, zeinetako populazioa aipaturiko *Moja-Etxe*, *Arriarte*, *Azkarate*, *Landaberri*, *Telleria* eta *Zozabarro* baserrietan banatua baitago.

Berriro Laurgainen, behin eta berriz sartu gara Jauregi-Etxe abegikorrean. Eraikuntza sotila; gure ingurune politiko, ekonomiko eta sozio-erlijiosoaren lekuko zuhurra. Tximini zaharrean kokaturiko mairutxo zaharkituek su egurrez zuzpurturiko sua babesten eta mantentzen dute.

Laurgaingo Jauregi Etxetik berrehun eta berrogeita hamar bat metrotara auzoko parroki eliza, Laurgaingo askaziari zegokion bezala, San Miguel Goi Aingueraren zaindaritzapean. Ondoko heriotz agiriak honela azaltzen digu:

Como Rector propio de la iglesia Parroquial de San Miguel del lugar de Laurgain, Provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, mandé dar sepultura eclesiástica en el día de la fecha al cadáver de Ramón de Lardizabal y Otazu, Patrono de esta Parroquia, natural de San Sebastián, viudo de Dña. Ana de Altuna y Otazola, de sesenta y nueve años, hijo legítimo de Juan Antonio de Lardizabal, natural de Segura y de Dña. Benita de Otazu, natural de Vitoria (ya difuntos).

Falleció el día nueve del presente en Ciboure, Francia, de un ataque apopléjico, habiendo recibido los Santos Sacramentos de la Extrema Unción; hizo testamento; y fueron testigos de su enterramiento D. Francisco de Alcorta, Rector de Alzola, y D. José Manuel de Auricenea, Rector también de Urdaneta. Y para que conste lo firmo en Laurgain a trece de Noviembre de mil ochocientos ochenta. D. Ramón Evaristo Alcorta.

Laurgaingo elizan aurkitzen zen hilobiaren deskribapena honela litzateke:

Hilobi hau 1970ko abenduaren 15ean ireki zen. Kanpotik zinkezkoa eta barrutik egurrezkoa, hermetikoki itxita hil kutxa handi dotore bat; beste bost zinkezko kutxatxo, alde batean izena eta bestean inizialak zituztela. Guzti hau dena Lardizabal sendiak Laurgaingo parroki elizan duen lurpeko hilobira eraman zen.

Hareharrizko tumuloak bi apaltegi zituen bata bestearen gainean. Azpikoa gainekoa baino zerbait tikiagoa zen. Azpikoan karez nahasturik hezur piloa zegoen eta hauen gainean zinkezko bost kutxatxoak, bakoitza bere ize-narekin: Juan Antonio Lardizabal, Miguel Joaquin Lardizabal, Luis Lardizabal, Benita Otazu, Anita Altuna. Izen ordena hau ez da ezeren adierazgarri.

Kareztutako hezurak, lurpean zeudenez, bertan utzi genituen.

Gaineko apalean D. Ramon Lardizabalen hilkutxa zegoen. Ondorio hau hil kutxaren gainean zegoen bulatik atera genuen, bertako azken hitzak hauek baitziren:

Garmendia, J.: Gipuzkoako Aia herria. Altzola eta Laurgain auzunetako giza urratsa

Y por quanto vos Ignacio de Lardizabal disteis 3 reales de vellón que es de Nos tasado para el expresado fin y a favor del alma de Ramón de Lardizabal y recibisteis esta Bula, le es otorgada la indulgencia plenaria sobre dicha.

Dado en Madrid a 15 de Enero de 1879

Juan Ignacio Cardenal Moreno
Arzobispo de Toledo².

2. Laurcain Jauregi Etxeko artxiboa. Laurcain hitza errespetatu dugu honela azaltzen baita *Jauregi Etxeko* Jabeen izena dokumentu zaharretan. Besteetan gaur egungo grafiaz azaldu dugu.



Laurgaineko sakristau eta seroraren betebeharrak eta eskubideak

BETEBEHARRAK

1. Jaunaren aldareko argia beti eta Errosariokoarena igande eta jai egunetan, nahiz ezabatua izan, piztua izatea.

2. Ohizko egun eta orduetan kanpaia jo eta erlojua zaintzea.

3. Apaiz jaunari eliz lanetan lagunduko dio, ordainez bi pezeta jasoko ditu egunoro meza laguntzeagatik.

4. Urtekoa duten hilobietan egunoro piztuko ditu argizagiak eta urtekoa ez dutenetan, igande eta jai egunetan, nahiz ezabatua izan.

5. Astean behin eliza garbituko du.

6. Elizaren kontura, apaizak emango dion sidol edo beste edozerez, urtean bi aldiz, hau da: Gorpuzti eta San Migel aurreko egunetan, elizako argimutilak garbituko ditu.

7. San Migel, Eguberri, Biztuera Bazko eta Gorpuzti, lau egun hauetan ezik, hauetan eliza apain jartzea ohizkoa denez, beste guztietan aldea jartzea bere kontu izango da. Halaber aldareak estali eta desestaltzen lagunduko dio apaizari.

ESKUBIDEAK

1. Parrokiak eginkizun bakoitzerako izendaturiko soldata jasoko du: hogeita hamar sakristautzagatik, hogeita hamar seroratzagatik eta hogei sakristauak erlojua zaintzeagatik.

2. Era beran, gutxi dezaketen familiengandik, urtean, lakari bat arto eta beste bat gari eta ahal dutenengandik bost lakari arto eta beste bost gari.

3. Baita elizan sila bat duen familia bakoitzeko apaizak jasoko dituen, hamar erreal izango ditu.

4. Laurgaingo Jauregi Etxeko Administrariak emanda, zaku ikatza eta urterako behar duen egurra jasoko ditu.

5. Errentaz libre izango ditu *Seroretegi* etxea eta bertako baratza. Baita Paseoan eta hilerri azpian dagoen hariztiko horbela ere³.

Paseo izenez, Jauregi Etxetik Elizara, beti berdina izan ez den, doan bidea ezagutzen da.

3. Laurcain Jauregi Etxeko Artxiboa. Altzolako San Roman eta Laurgaingo San Migel Parrokiei buruz, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak argitaraturiko Luis Murugarrenen *Universidad de Aya* monografi interesgarria.

Laurgaingo baserria

Parroki elizatik gertu *Iriondo* eta *Serorategi* baserriak daude eta eliza honi dagozkio, bertan bizi diren beste baserri hauek: *Bierreizta*, *Orbelaun*, *Landarbide-zaharra*, *Landarbide-behekoa*, *Mindi*, *Sarrola Ibarrola-goikoa*, *Ibarrola-behekoa*, *Manterola* eta *Borda-berri* etxea eta Laurgaingo baserriak baina elizaz Oriori eta Zarautzi dagozkienak: *Beobate-goikoa*, *Errotaetxe*, *Altxarri*, *Oribar*, *Suai*, *Torretxo*, *Oribar zahar* –bi bizitzakoa– *Amezti* eta *Trindurrieta* –bi bizitzakoa–.

Burdinolatzaz zerbait

Gaur egun auzune edo bailara haueko kezka ekonomikoak lurlangintzaz gain beste ekintza batzutura zuzendu ditu bertako biztanleak. Aurrez esan beharra dago Laurgain eta Altzola nekazarik zirela. Baina ez zen langintza bakarra, bazituzten beste batzuek ere beren kideko beste zenbait bailaratan bezala. Arinki bederen, langintza hauen berri izan dezakegu 1791ean *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*-ek ospaturiko Batzar Nagusietako aktetan begiratuz.

(...) ellas –las ferrerías– son las que dan proporcionada ocupación a sus agricultores (...), ocupándose en aquellos tiempos en que no pueden emplearse en los sembrados (...), ya en hacer carbón y conducirlo; ya en la saca y acarreo de la vena; ya en el porteo de los hierros y aceros con otras muchas ocupaciones; sin las cuales ni ellos podrían subsistir en el país, ni menos pagar tanto diezmo y primicia, ni a los propietarios de las casas y (los) caseríos tan crecidas rentas.

Honela ihardungo da gogoeta hauek eginaz, Aiako bi bailara hauei buruzko aipaturiko artikulua.

Luis Miguel Díez de Salazarren *Ferrerías en Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI). Fuentes e Instituciones* 2. alean burdinolan aipamenean Altzolan *Izurola* edo *Izurola* eta Laurgainen *Agorria*, *Ibarrola* eta *Oribar* agertzen dira. Era berean, Manterolako burdin langintza *Arruti* lurretan kokatua agertzen zaigu⁴. Mante-rola baserria Laurgainen dagoela egiaztatu dugu, antzina, izen bereko burdinola izan zen bezala. Díez de Salazarren berri hauek XIV-XV. mendekoak dire.

Agorria burdinolari buruz, Díez de Salazarrek, aipaturiko lanean, 1. alean⁵ xehetasun handiko deskribapena egiten du. Honetaz, gure lagun Juan Antonio Garmendia Elosegiren eskutik ezagutzen dugun lan aipagarritik hartuta, Laurcaingo lotura eta maiorazgoaren (1533) sorrera eskritura eta Jauregi

4. Luis Miguel Díez de Salazar: *Ferrerías en Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI). Fuentes e Instituciones*. 2. alea. 342-344-46 orri.

5. Luis Miguel Díez de Salazar: *Aip. lan. Historia* 1 . alea, 96-97 orri.

Etxeko Jabeak emaniko testamendua (1530) deskribatuko ditut, zeinetan *Agorria* burdinola aipatzen baita.

1533ko otsailaren 15ean, Laurcaingo Juan Beltran zaharrak Jauregi Etxeko jauna eta Laurcaingo San Miguel elizaren jabea, bere semeen arteko aukeraz, sortu zuen Laurcain Etxe, lur eta burdinolaren arteko maiorazgo eta lotura.

Aipatu dokumentuak honela dio:

Sepan quantos esta carta de donación vieren como yo Juan Beltrán de Laurcain dueño e Señor de la Casa e solar de Laurcain que es en el término e jurisdicción de la tierra de Aya, de mi propia agradable expontánea voluntad, sin premia ni fuerza ni otro inducimiento alguno que se me ha fecho dicho por persona alguna otorgo e conozco por esta presente carta que pago donación pura mera é non revocable la qual llama el derecho entre vivos por juro de heredad para siempre jamás á vos Doña María Beltrán de Laurcain viuda mi hija legítima dueña é Señora de la Casa de Echave que es el término o jurisdicción de la villa de Zumaia

(...) Primeramente con condición que yo el dicho Juan de Beltrán de Laurcain haia é goce para mi enteramente ni participación ni división alguna todo el usufructo de la dicha Casa e solar de Laurcain é todos sus caserías heredades é montes é castañales é prados, é abrevaderos, de todos é qualesquier términos a la dicha Casa é solar anexo é pertenecientes é de la ferrería, é molinos, de Agorria que son conocidos por el dicho nombre é por de la dicha Casa solar de Laurcain en todos los dias de mi vida. Sin que vos la dicha María Beltrán de mi hixa en ellos tengais ninguna parte ni mando en todos los días de mi vida según dicho desuso (...).

E después de lo susodicho en la Casa Lagar de Laurcain que está junto con la dicha Casa de Laurcain este dicho dia mes é año susodichos en presencia de mí el dicho escribano é testigos el dicho Juan Beltrán de Laurcain puso a la dicha Doña María Beltrán su hixa en la posesión de la dicha Casa Lagar de Laurcain é dixo, que del dicho Lagar mismo la ponía en la posesión de la ferrería é molinos, e las otras Caserías e otros é qualesquier pertenencias a la dicha Casa e solar de Laurcain anexas é pertenecientes é luego la dicha Doña María Beltrán en señal de posesión entro dentro de la dicha Casa é á su muxer é familia é cerró é abrió las puertas, de la dicha Casa é anduvo por ella paseando á una parte é á otra e dixo que ella se daba por entregada é aprendida de la dicha posesión testigos los susodichos –Juan Beltrán– Paso por mi lo susodicho Beltrán de Mendia.

1530ean aipatu Juan Beltranek eginiko testamenduak beste honako hau zioen.

(...) yo señalo a la dicha María Beltrán la dicha su porción hereditaria y las dichas mejorías de tercio y quinto en la Casa torre de Laurcain y en su ferrería y molinos de Agorria (...)⁶

6. Conde de Urquijo: *Casas y linajes de Echave y de Laurcain*. Vol. 1, pp. 20, 21, 27, 29.



Pagoetako gurutzea

Lope de Isastik Aian sei burdinola kokatzen ditu, hauen artean Manterolakoa dago⁷.

1752an, Gipuzkoan hirurogeitamairu burdinola ezagunak zeuden, hirurogeita bi mila eta zazpireun kintaleko etekina ateratzen zuten. Hauetatik bost Aian kokatuak. Gure lanean aipagarri zaiguna Manterolakoa dugu.

En Manterola labran seiscientos quintales y su ferrón es Ignacio Arrillaga (...)⁸.

Estado general del Número de minerales de Yerro y Ferrerías que hay para labrarlos en cada uno de los Pueblos de esta M. N. y M. L. Prv. de Guipuzcoa.

Aipamen honetan 1791n Aia sei burdinolekin azaltzen zaigu, zein

se surten de carbón de los montes del mismo Pueblo⁹.

Gorosabel historigile tolosarrak honako xehetasun hauek ematen dizkigu: *Actualmente hay (en Aia) una ferrería, que es la de Alzolarás; pues otras tres que había denominadas de Arrazubia, Recondo y Olaechea están paralizadas y cerradas*¹⁰. Historigile tolosarraren garaiko burdin langileei buruzko aipamen laburrak baizik es dira hauek.

Erreka ondoan kokaturiko burdinola batetako elementu garrantzitsuenak: *antepara* (hitz hedatua); *errueda* hidraulikoak (Tolosa) hortzdun ardatzekin edo *gabioine mazokabikin* (Berastegi eta Ibarra); mailua edo *gabia* (Berastegi); *auspoak* (hitz hedatua); *sutegia* (hitz hedatua), txingura (Berastegi, Arribe e.a) eta *estolda* edo *estoldie* Durangon.

Hamarrenak eta etekinei buruzko aipamen berezia egiten dute eskuartean ditugun R.S.B.A.P.ko aktetan

(...) ni menos pagar tanto diezmo y primicia (...).

7. Lope de Isasti: *Compendio Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, pág. 235.

8. Juan Garmendia Larrañaga: *De Etnografía Vasca (Cuatro ensayos): El Caserío. Ritos Fúnebres. Galera del Boyero. Las Ferrerías -1976-*, 203 orri.

9. Juan Garmendia Larrañaga: *Aip. lan*, 241 orri.

10. Pablo de Gorosabel: *Aip. lan*, 76 orri.

Amarrenak eta primizik

Hamarreneko hauen jatorria Erdi Aroan aurkitzen dugu. Gipuzkoari dagokionez, Toledoko Arzapezpikutzako herrietako Korrejidore, Alkate Nagusi eta Arrunten Kontsejuko aginduetatik honako hau jaso dugu:

Porque nuestro Señor en señal de universal señorío retuvo en sí el diezmo, y no quiso que ninguno se pueda excusar de dar; y porque los diezmos son para sustentamiento de las iglesias, prelados y ministros de ellas, y para ornamentos y para limosnas de los pobres en tiempo de hambre, y para servicio de los reyes y pro de su tierra (...).

Por ende mandamos y establecemos para siempre jamás que todos los hombres de nuestro reino den sus diezmos derecha y cumplidamente a nuestro Señor Dios, de pan, vino y ganados, y de todas las otras cosas que se deben dar derechamente, según lo manda la Santa Madre Iglesia (...).

Y otrosí mandamos y tenemos por bien que todos los obispos y la otra clerecía den diezmo derechamente de todos sus heredamientos y de todos los otros bienes que han, que no son de sus iglesias; y por excusar los engaños que podría haber en el dezmar, defendemos firmemente que de aquí adelante ninguno sea osado de medir ni coger su montón de pan que tuviere en limpio en la era sin primero sea tañida la campana tres veces para que vengan los terceros o aquel que debe recaudar los diezmos. Y que estos terceros o los que deban recaudar, defendemos que no sean amenazados ni corridos de ninguno, ni heridos, por demandar su derecho. Y mandamos que los dichos dezmeros no lo midan ni lo cojan de noche ni a hurto, más públicamente a vista de todos y cualquier que contra estas dichas cosas fuere, peche el diezmo doblado, la mitad para el Rey y la otra mitad para el Obispo; salvas las sentencias de excomunión que dieren los Prelados contra todos aquellos que no dieron diezmo derechamente (...).

Y porque algunos de los lugares donde se hacen las labranzas son tan lejos de las ciudades, villas y lugares de su término, que no podría oír la dicha campana, mandamos y defendemos que ninguno ni alguno no sean osados de coger, ni medir, ni de llevar de las eras sus montones de pan que tuvieren limpio, ni alguna parte de ellos, hasta que primeramente en los dichos lugares donde hubiere la dicha campana que no se puede oír, requiera el labrador o la persona que hubiere de dezmar al arrendador de la colación o limitación (...).



Pagoetako gurutzearen bedelinkapena



Laurgain auzoa

Son tales las defraudaciones y abusos en su cumplimiento, que han movido el celo de este Prelado a representar a S.M. los daños que se causan impunemente a todos los partícipes en diezmos (...).

Guárdese y cúmplase la precedente Real resolución, comunicada por el Supremo Consejo de Castilla (...). Lo mandó el Señor D. José Joaquín de Garmendia, abogado de los Reales Consejos y Corregidor interino de esta Provincia de Guipúzcoa, en Azpeitia a 5 de Diciembre de 1817 (...) ¹¹.

Honez gain esan behar dut 1766an *matxinoek* gaztaina hamarrenekotik libre izan zedila eskatu zutela.

Hamarneko, etekin eta hauen erantzukizunari buruz, Gipuzkoako Arzapezpikutza Nagusiko elizetako antolamendua konsultatu ondoren, gure lanarekiko argitasun hauek jaso ditugu:

36 - Iglesia Parroquial de San Miguel de Laurgain. Diezmo de 10 uno, en trigo 78 fanegas, en maíz 40 fanegas, en manzana 60 fanegas, en habas 2 celemines, corderos 12, lechones 5, nueces 6 celemines, castañas 17 fanegas. Por ganado vacuno y lino 105 reales.

Primicia de 40 uno en remate 152 ducados y no hay diferencia.

37 - Iglesia de San Román de Alzola. Diezmo de 10 uno, en trigo 70 fanegas, en maíz 107, en manzana 7 fanegas y media, en habas 2 fanegas, diez corderos, 6 lechones, castaña 5 fanegas. Por ganado vacuno y lino 43 reales.

Primicia de 40 uno en remate 130 ducados y no hay diferencia ¹².

11. Nere paperetatik.

12. Gipuzkoako Apaiztegiaren Artxibotik. C. Sekz. 2 Neg. A. Apar., 1782-1816 urteak.

Nekazari munduko bizimodua

Hamarrekoen aipamenak nekazari mundura eta beronen langintzara garatzea. Altzola eta Laurgaingo baserri mundura bideratzen gaitu; bere jai, festa eta heriotzaren jazoera ospatzeko eratarata. Testu inguru honetan mugatuko dut nire lana. Aurrez esan behar dut, baserri lanetarako aipatzen ditudan hilabeteak ez direla beren egunetara zehazki mugatu behar, zabaltasun batean baizik.

Orohar, baserri baten alokatze konpromezua Azaroaren 11n, San Martin eguna, amaitzen da. Maizterrak baserria utziko balu, egun hori baino lehen egin beharko luke eta egun horretan, teorikoki, maizter berriak baserriaren alokatze konpromezua hartuko luke. Errentaren ordainketa Abenduaren 21ean, Santomas egunean, egin ohi da.



Aitzpeako ermitara doan bidea Aian

Altzolako mutil-ardoa elkarte

Santu Guztien Egunean, ilunabarrean, *Altzolako Mutil-Ardo*a taldeko kide ziren gazteak, antzina antzina, *Etxeerre* baserrian eta geroago *Moja Etxeko* tabernan elkartzen ziren.

Gazte elkarte honetan Komunio handia egindako, hamabi urtetako mutilak sartzen ziren. Hauek, herriko festetarako, ematen zuten diru laguntza besteenaren erdia izaten zen.

Azaroaren leheneko *Mutil-Ardo* gazte batzarrean *giltzeroak* izendatzen ziren. Hauek, urtebeterako izendatuak, taldearen ardura zuten. Borondatezko arduradunik ez bazen, kargu hau, kartetan, bateko urrrea zuenari erortzen zitzaion.



Altzolan, San Roman jaia

Giltzeroak Azaroaren 18a, San Roman eguna, bailarako zaindari eguna baino lehen Aiako alkatearekin biltzen ziren jai programa eztabaidatzeko. Honen ardura eta kezka bakarra gaueko erromeriaren amaiera ordua izaten zen. Betebehar hau ematen zien gazteei eta hauek *Mutil-Ardo* elkartetxean, atean, zintzilikatzen zuten.

Urtez urte, *giltzeroek* San Roman bezpera ilunabarrean, bi zahagi ardo erosten zituzten. Hau zen *Mutil-Ardoa*. Aiako herrian erosten zuten eta suziri, buila artean eramaten zuten. Zahagi ardoak *Etxeerrera*, batzar etxea, eramaten zituzten. Hemen trago batzuk egin ondoren, zaindariaren jaia ospatzen jarraitzen zuten handikiro. Ardoa gordetzen zeneko almatzeneko *giltzeroak* jasotzen zituen. Gaur egun, oraindik, *Mutil-Ardo* ohitura honek bizirik dirau, nahiz eta ardoa garrafoietan tabernara ekarri. Mutil-ardoa elkarte eta bere *giltzeroak* ohizkoak dira.

San Roman egunean, goizeko zazpitan ematen zen lehen meza eta hamarretan Meza Nagusia. Honen aurretik txistulari eta tanbolinteroak iristen ziren eliz atarira eta gazteen dantza saioak alaitzen zituzten.

Mezerdi garaian txistulariek txistua jotzen zuten eta Altzolako (honetaz aurrerago ariko gara), Laurgaingo eta Urdanetako maiordomuak diru eskea egiten zuten. Bakoitzak biltzen zuen dirua bere bailarako parrokiarako izaten zen; auzo hauen arteko elkartasuna eta harreman onaren ezaugarri dela esango genuke jokabide hau. Meza Nagusira Aiako alkatea joaten zen. Meza Nagusi orndoren, eguraldiaren arabera, prozesioa elizbiran edo eliz atarian egiten zen. Ondoren, orain berrogeita bost bat urte arte egin den bezala, *aureskuak* dantzatzen zen plazan.

Erromeria, arratsalde, plazan edo *Etxeerre* edo *Apaiz Etxeko* laborantza eta gainerako lanabesak jasotzen ziren mandioan egiten zen.

Festaren erdian, *giltzeroek* deituta, *Mutil-ardoko* kideek biltzen ziren eta festetarako beraiei zegokien diru saria ordaintzen zuten, azken ordurako utzi eta kitaketak egiterakoan ezuste bat izateko.

Ordainketaren ondoren festak aurrera egiten zuen gaueko bederatzia arte; hau orain dela hirurogeita bost bat urte arte.

Biharamonean, goizeko hamarretan *mutilen meza* ospatzen zen. Bertan *giltzeroetako* batek parroki elizaren beharretarako diru eskea egiten zuen.

Festei amaiera arratsaldeko eta gaueko erromeriarekin ematen zitzaien.

Altzolan San Roman hirugarrena ospatzen zen. Hirugarren egun honetan, goizez, *oilasko biltzea* deituriko, etxez etxe, eskusoinuz alaituta eskean ateratzen ziren. Guztiek txapela, ohizko galtzak eta sedazko paineloa lepoan, oinetan azmantar zuriak eta abarkak zeramatzen. Bi gazteren artean zeramaten *sardaian* hanketatik zintzilikatzen zituzten ematen zizkieten oilasko eta oiloak. Baserrik baserri egiten zuten eskea eta etxe bakoitzean dantza saio pare bat. Hildakoren izana zuten etxeetan eta lutoari errespetoz, txapela kenduta, Aitagurea edo Salbea errezatu eta ez zuten soinurik jotzen.

San Roman hirugarrena gauean, gaztediak –neska eta mutil– *Etxeerre* baserrian, *oilasko jatea* –bildutako oilaskoen jatea– egiten zuen; ondoren, eskusoinu edo soinutxikiaz alaituriko dantzaldia izaten zen. *Mutil-ardoko* kidekoen gain izaten zen soinujoleei ordaintzea eta egun horretan eta *San Roman Domekan* festara zetorrenari egiten zitzaion ardo konbidatzearen gas-tua.

Iadanik duela hamabost bat urte galdua den *oilasko jatea* bere azken urteetan tabernan egin zen.



Gurdibidea, Pagoeta bidean



Agorregiko burdinola. Airetik ikusita

Udazken eta neguko langintza

Festa alde batetara utzi eta hil honetako laborantza lanetara goaz. Azaroren haseran *gaztain biltzea* egiten zen. Hau, nahiz egosita nahiz erreta, janari baliotsua izan da gure baserrietako jatorduan. Gordinik behi eta zerriei ematen zitzairen.

Azaroon, *artozu*tarrak segaz edo igitaiez ebaki, pilatu eta erre egiten zituzten. Artoa erein eta bildu zen soro edo lur berean garia ereiten zen, *gari egitea*. Antzina antzina artozu-tarrak lurperatu egiten ziren, simaurtu eta abonu bihur zitezten.

San Martin inguruan –*San Martin inguruan da sasoi*– aurretik aberez tiratua eta atzean gizona kalkatuz, nabarraren hortza lurrean sar zedin, lana-besa honekin lurra markatzen *lurra moztu* zuten.

Ondoren laiaz lantzen zuten eta hazia erein hazia bota hau eskuz egiten zuten eta gizonen lana izan ohi zen.

Egun berean area pasatzen zuten, lurra astindu eta hazia nahastuz.

Azaroon izaten da baita sagardoa egiteko lana. Horretarako tolarerik ez zuten baserrietakoek sagarra gurdiz *gurdi-sagarra* tolarea zuten baserrira eramaten zuten. Ondoren, sagar zukua gurdiz *gurdi barrika* etxeratu eta ontzi edo bukoian botatzen zen.

Tolarearen erabileraren ordaina diruz edo, legez edo ohituraz, ezarritako egunetan laborantzako lanetan lagunduz egiten zen.

Azarokoa dugu baita ere txerri hiltzea. Lan hau hurrengo hiletan, abendua eta urtarrilean, egin nahiago izan da.

Langintza honetarako, lan honetan ibili ohi denari *txerri-hiltzailea* deitzen zaio.

Zerria mahai gainean jarri eta hanketatik eta gantxo *txerri gantxo*a burutik eutsi eta labanaz hiltzen da goizean. Odola, nahastuz, gogortu ez dadin, ontzi batean hartzen da gero odolkiak egiteko.

Ondoren, etxe aurrean *etxe atarian* lastoz egindako sutan ilek erre eta labana batez eta urez garbitu eta eskuekin edo txerri gantxoarekin azkazalak kentzen zaizkio.

Zerria berriro mahai edo banku gainean ipini eta kanalean ireki, tripak atera eta txikitu baino lehen, hoztu dadin, zintzilikatzen dute.

Barrunbeak atera ondoren hiltzen parte hartu dutenek *txerrigibel jatea* egiten dute, ardoz eta kafez ornitua.


Egun berean odolkiak egin eta zerria txikitzen dute.

Ordainetan etorriko diren odolki bat edo beste, urdai eta giarre pusketak ematen zaizkie zerri hiltzaileari, auzo eta senditartekoei. Esaera zahar batek honela dio: *hartuk emanakin du saborea*. Usuario zahar hau, Tolosaldean, *odolkik* edo *txerrimonik* izenarekin ezagutzen da. Eramailea baserriko neska edo mutil txikia izaten zen eta honela esaten zuen: *Gure etxeko txerri txikiaren puskak probatzeko*.

Laurgainen, txerri hiltzaileari zerriaren isatsa *txerri buztana* ematen zitzaion.

Garmendia, J. : Gipuzkoako Aia herria. Altzola eta Lauzgain auzunetako giza urratsa









Ume jokuak

Aipatu neska mutil txikiek baserriko beren betebeharrak eta beren adinari zegozkion jolas eta dibertsioak ezagutzen zituzten. Eskolara joaten ziren baita plazara ere jolasera. Laurgaingo haurrak gordeketa *kukumikuta* jolasten ziren.

Jolas honetan, suertatzen zitzaionak begiak estaltzen zituen bere besoe-kin eta honako hau kantatzen zuen: *kuku miku kuskunde zahagia bete domine. Purgatorio salbatorio gorde zerate. Bule.*

Zigortuak mordoilo hau kantatzen zuen bitartean besteak gorde egiten ziren eta ondoren bila hasten zen. Norbait aurkitzen bazuen, bere izena aldarrikatu eta bera zegoen lekura ekartzen zuen. Bilaketa denboran, gordeta zegoen norbaitek harrapatutakoren bat ikuituz gero, honek honela esango zuen: *Tximilikuarte* edo *korte* eta guztiak libre geratzen ziren eta jokuak jarraitu egiten zuen. Hori horrela gertatzen ez bazen, guztiak aurkitu eta gero, *Kukumikuta* berriro hasterakoan, lehen zigorra bete zuena libre geratzen zen zozketan.

Ainbiriketan zen Laurgaingo neska mutilen beste jolas bat. Jolas honetarako korroan ipintzen ziren. Parteharzaile batek zenbaki bat esaten zuen ozenki eta gero kontatzen hasten ziren. Zenbaki hori tokatzen zitzaiona kanporatu, bakarra geratu arte, *atxi*. Esate baterako, zazpia bazan hautaturako zenbakia eta korroan bi besterik ez geratzen zirenak, halere zazpi arte kontatzen zen.

Atxik beste guztien atzetik joan eta, harrapatu egin behar zituen, kantu hau kantatzen zuela: *Ainbira mangira harrapatu arte segi*. Harrapatua horma edo zuhaitz baten kontra ipintzen zuen eta gero besteen bila joaten zen. Harrapatzen zituenean aurrekoari lotuta katea egiten zuen. Libre zegoen neska edo mutilak katean zegoen norbait ikutuz gero, katea hautsi eta guztiak libre geratzen ziren berriro. Baina *atxik* guztiak kateatzea lortzen bazuen, joku berriro hasteko, *atxi* berriz suertatzen zen.

Abenduan, behien azpitarako, *horbel biltzea* eta sutarako egurra egiten ziren.

Eguberri

Gabon gaueko afaria izaten zen Altzola eta Laurgaingo baserrietako bereizgarri bakarra.

Altzolan, orain dela hirurogeitamar bat ure, gau horretarako ardikia *ardian gixaua*; tomatea bakailauarekin; aia; turroia; sagar *errege sagar*; mahatsa pasa eta piku lehorraz eginiko konpota ardo, azukre eta kanela zotzez gozatu; sagardoa edo ardoa eta kafea pattar zuri edo gorriarekin.

Laurgainen, Eguberri *Egoarri eguna* bezpera gaueko afaria beste hau izaten zuten; olioz eginiko azak *olio azak*; bakailaua tomatearekin; oilaskoa edo oiloa; sagar, aran eta mahats ondu, azukre, kanela zotz eta ardoz eginiko konpota; gaztain erreak; sagardoa edo ardoa eta kafea pattar zuriekin.

Aiako bailara hauetan Gabon gaueko afari bera izaten zuten, urteari agur egiteko, *Urtezahar* gauean.

Laurgaingo *Landarbide* eta Altzolako *Arriarte* baserrietan, egunoroko afaria amaitu ondoren, aitonak edo bertako zaharrenak otoitz *mahaikorazioa* egitea ohizkoa zen; *Paternoster* bat. Ondoren, mahaitik altxa baino lehen, jende eldu guztiek beren besoak mahai gainean ezartzen zituzten eta txikiari, oraindik Jaun hartzea egin gabeak, esku gainean, banan bana, gurutzearen seinalea egiten zieten. Haurrak, neskek eta mutilak *Jaungoikoak bedeinka zaitzala* esanaz agurtzen zituzten.



Agorregilko burdinola

Laurgainen, maiordomoa izendatzea

Laurgainen *maiordomoa* urtarrilaren batean izendatzen zuten beti. Hautaketa hau, Altzolan San Juan egunean bezala, *koskan* San Migel parrokioko baserri guztiek parte hartuz egiten zen.

Urte Berri eguneko Meza Nagusi ondoren, eliz atarian biltzen ziren maiordomo zaharra eta hautatu berria. Honek, ateratzen zenarengandik, elizako hormetan sartua zegoen kutxa baten giltza jasotzen zuen. Kutxa honetan *atabalak* gordetzen ziren. Hauekin maiordomo zahar, hautatu berriak eta azken izandako beste biak egiten zuten eskea elizan.

Eske hau igande eta jai egunetan, Meza Nagusian, egiten zuten. Batek *Jaunaren argjarentzako* besteak *Errosarioko kofradiarentzako* hirugarrenak Purgatorioko animentzako eta laugarrenak San Agustinen izenean *San Agustinentzako*.

Lehen maiordomoak, hautatu berriak, bere kideei atabalak ematen zizkien. Berezitasun bakarra; San Agustinen izenean dirua biltzeko atabala besteak baino tikiagoa zen.

Atabalak *Elduaienen txaliek* diru eta guzti kutxa jakin horretan jasotzen ziren eta, urtean bitan biltzaile bakoitzak elizako beharretarako apaizari ematen zioten.

Maiordomoak San Migel bezperan eliza garbitu eta Ostegun Santuan Jaunaren monumendua ipini eta Larunbata Santu goizez jaso egiten zuen.

Gorputzi egunean, maiordomoak eta bere aurreko hirurek palioa eramaten zuten prozesioan.

Bailarako norbaiten hiletetan, gorpua errezibitzeko, Errosarioko Amaren, Jesusen Bihotzaren eta San Agustinen estandarteak eliz atarira atera eta berriro elizan bere lekuan uzteko lana maiordomoaren eta bere bi aurrekoen egitekoa izaten zen.

Laurgaingo Jauregi Etxeko etxezaintza maiordomo lana honela zegoen egituratua:

“1.- Jaunaren zaintza zuenarena

a) Elizako funtzioak

- 1) Igande eta jai egunetan Jaunaren argitarako dirua jaso behar du.
- 2) Errogatibetako prozesioan gurutzea eta bandera eraman behar ditu, San Pabloren ermitara egiten den errogatiban. Bertan emango den mezatan diru eskea ere egin behar du.
- 3) San Miguel bezperan eliza garbituko du.
- 4) Argiak piztu eta itzaliko ditu Asteazken, Ostegun eta Ostiral Santuko maitinetan. Eta Monumendukoak Ostegun eta Ostiral Santuan piztuko ditu.
- 5) Altzola eta Urdanetako zaindariaren jaietan, bertara joango da San Migel eskea egitera. San Migel parrokiari, bertako jai egunean egingo du eskea eta erretore Jaunari emango dio guztia.

b) Jai profanoetan

- 1) San Migel egunez, Altzolako eta Urdanetako maiordomoei, bi dantzari, danborrera eta danbolindariari bazkaria eman behar die. Honetaz gain, ohea eta hurrengo eguneko hamaiketako ere bere kontu izango dira.
- 2) Maiordomoak Aiako Alkateari Laurgaingo plaza eskatu eta bere administratzaileari zer nolako jaia izango den adieraziko dio, honek bete beharreko arauak ezar ditzan. Jaiak egokiro ospatu behar dira. Hauetan gertatuko liritekeen jokabide salagarrien erantzukizuna maiordomoarengain eroriko litzateke.
- 3) Azkenik, Erretore Jaunaren etxean, aurrekuan aurkeztu behar ziren nesken eskaera eta usuario zaharrekoino painuelo trukaeraztea ere bere gain izango zuen.

c) Errosarioko kofradiako maiordomoarena

- 1) Kofradi honen izenean, igande eta jai egun guztietan, eskea egin behar du.
- 2) Prozesioetan Errosarioko estandarte eraman behar du.
- 3) Kofradi honi, limosna gisa, ematen zaizkion lakari artoa eta lakari garia, garaiz, beheko etxeetan behar ditu. Baita ere limosna bezala ematen duten erreala.
- 4) Hiletetan, kofradiakoen artean, kandelak banatu, limosna bildu eta apaizari eman behar dio. Gauza bera egingo du kofradiakoen alde izango diren mezatan.
- 5) Azkenik, kofradiako baten ehorzketa denboran, Errosarioko estandarte eliz atarian izango du.

d) Animetako maiordomoarena

- 1) Parrokiko hildakoen aldeko eskea egin behar du igande eta jai egunetan, bi mezatan.
- 2) Meza batentzat haina bildu bezain laster apaiz jaunari emango.
- 3) Prozesioak zuzenduko ditu.
- 4) Azkenik, dirua biltzeko bandeja Santo Kristoren aldaretik hartu, dirua bildu, berriro han utzi eta bukaeran kutxan sartu behar du.

e) San Agustinen maiordomoarena

- 1) Santuaren izenean igande eta jai egunetan eskea egingo du.
- 2) Prozesioetan Jesusen Bihotzaren estandarte eramango du.
- 3) Azkenik, hiletetan estandarte hori eliz atarian izango ehorzketa denboran.

Oharra

- 1) Egun honetatik aurrera, elizkizunak handikiro ospatzearen, lau maiordomo hauek eta utzi duten azken biak eraman dezatela palioa agintzen dut.
- 2) Hauetako norbaitek bete ezingo balu, bere ordezkoa jarri behar du, baina ez haur bat. Ordezkoa ordezkatzan duen maiordomoaren aulkian jarriko da. Hau utzi duten azken bietakoren batena balitz, Ebanjelio aldeko bigarren aulkian eseriko da.

Datorren Urtarrilaren lean maiordomotza *Bizkarrek hartu eta ordena hau jarraituko du: Serotegi (sic), Sarrola, Amezketalardi, Sagastizabal, Mindi, Gastandizabal, Reizta-goikua, Reizta-behekoa, Agorria, Iturran, Manterola, Ibarrola-goikua, Ibarrola-behekoa, Landarbide-Zubimendi, Landarbide-Arruti, Landarbide-zaharra, Orbelaun, Iriondo, Palazio, Behi- etxea eta Tolarea edo Etxebarria* bukatu (...) Laurgainen 1916ko abenduaren 18a»¹³.

Maiordomotza lanaz gain (honetaz luzaro aritu gara) bazuten baserriko beste eginkizunik ere. Hauetan, urtarrilean, urtean zehar baino lasaiago ibiltzen ziren. Maiz nekazaria, bere laborantza lanez gain, bere egoitza egoki kokatua bazegoen, ikazkintza lanetan ihardun ohi zen. Txondarra zaintzen zuen. Honetarako aizkora, haitzurak, zurezko mazoak, burdinezko palak, burdinezko eskuarea eta zerra erabiltzen zituen. Sua edo txondarra betegarriaz, trontzaz ebakitako berrogei bat zentimetrotako egurrez, betetzen zuten. Ikazkinak galbaeak eta zestoak erabiltzen zituen.

Ikatz zakuak bi-hiru arroakoak (arroa bakoitzak hamabi kilo t'erdi ziren). Ikatza bezeroetara, mandazaiek gidatuta, sei zakuz kargatutako mandoz eta idi gurdiz eramaten zuten.

Altzolako baserritarrek Semeola mendian eta Laurgaingoek Laurgain-zaharra mendian, basozainak *monteroak* ezartzen zieten lekuetan egiten zuten ikatza.

13. Laurcaingo Jauregi Etxeko paperetatik.

Kandelaria eguna

Kandelario elurra dario.

Altzola eta Laurgaingo esaera zahar batek honela dio *Kandelaio elurra daio*.

Otsailaren 2a, Kandelario eguna, ez da jai eguna. Egun horretan emakumeek kandelak eta argizagiak bedeinkatzera elizara eraman ohi dituzte. Hauek ekaitza denean, Erramu igandean bedeinkaturiko erramu adarki bat errez pizten dira.

Altzolan mahai gainean suziri bat *kandeleroa* kandelarekin ipini eta erramu adarra taloburniaren gainean, sutako brasa piska bat eta olio tanta batzurekin, kea atereaz, erretzen dute. Taloburnia etxe sarrerako ate atzean, lurrean, uzten zuten.




Arrarte baseria

San Blas

San Blas eguna, Otsailaren 3a, eztarriko osasunaren zaindaria. Egun honetan, bakoitzak bere parrokira janari desberdinak bedeinkatzera eraman ohi zituen.

Altzolan baserriko behi buru haina artaburu bedeinkatzen zituzten. Gero behi bakoitzak zegokion artaburu jan eta edozein gaisotasunetatik libre geratzen zen.



Altzola frontoia Aian

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera, Bailara hauetako gazteak, goizeko zortziak aldera, parroki aurrean bildu eta eskean ateratzen ziren, soinojolea *soinujotzailea* lagun, guztiek bruxa beltza, egunoroko galtzak, sedazko painuelo lepoan, azmantar zuriak eta abarkak soinean zituztela.

Gazte batek zestoa, manes erakoa (Zumarraga) zeraman. Bertan, etxe batzuetan diru saria ematen bazien ere, arraultzak eta lukainak sartzen zituzten. Kantuan koplari bat hasten zen eta honek kantatua besteek errepikatzen zuten.

Santa Martiri maitia, dago errukiz betia, berak alkantzatuko digula osasuna eta pakia.

Dios te Salbe bakallo jale, bost eta sei amaika, txorizorik ez pada igual zaiola lukainka.

Errekalden harri txuria, haren gainean txoria, etxe hontatik esperatzen det errealbiko txuria.

Lutoa zuten etxeetan kantuaren ordeztarrez egiten zuten. Txapela kenduta Aitagure edo Salbe bat errezatzen zuten.

Urdaneta eta Elkano bailarak eta Aiako herrigunea korritzen zituzten eta Zarautzeraino iristen ziren. Altzolakoek Getari eta Laurgainen ere eskatzen zuten eta Laurgaingoak Orion eta Altzolan.

Eske ibilerak agintzen zuen tokian bazkaltzen zuten. Altzolan, *Santa jatea* egiten zuten, hau da; Santa Ageda eskeko hurrengo igandean bazkaria eta afaria. *Etxeerre* baserrian egiten zuten; bi bizitzako etxea eta izenari ohore eginez, orain dela hogeita hamaika bat urte sute batek erre zuena. Santa jatearen ondoren, neskek ere parte hartuz, eskusoinuz –filarmonika edo soinu txikia– alaituriko dantza saioa egiten zen.

Laurgainen eske diruarekin, hurrengo egunean, auzoko tabernan, bazkaria edo afaria *Santa Ageda eskeko janaldia* egiten zuten. Hemen ez zegoen dantzaldirik.

Karnabal

Ihauteri edo karnabalak ere Otsailean finkatuko ditugu. Hauek Laurgainen, gazteren bat aurpegia margotuta edo mozorrotuta ez bazen, ez zuten berezitasun handirik.

Altzolan, *iñuti* hitzak antzina ospatzen ziren ihauteri jaietara garamatza: *Igande Iñuti Astelehen Iñuti* eta *Astearte Iñuti*. Hauek Auster egunaren *Austerri eguna* atari ziren. Egun hau bi auzoetan jai zen. Altzolan aste honi *Iñuti Astia* deitzen zioten.

Lanari dagokionez, otsailean nekazariak urterako behar zuen suegurra egiten zuen basozainak izendaturiko bailarako terrenoetan.

Hil honetan, lurlanetan, artoa eta babarruna ereiteko lurra prestatzen hasten ziren. Hasieran nabarra pasatzen zuten eta ondoren laialari talde batek laiaz laitu. Taldea laukoa, bostekoa edo seikoa zen: lau zoiak, bost zoiak edo sei zoiak deitzen zitzairen. Zoia laiaz altxatzen zen lur zatia zen. Emakume laialaria lana hain astun gerta ez zekion, taldearen erdian jarri ohi zen.



Altzolako hilerria Aian

Udaberri-udara

Martxoan ere, lur lan hauetan, laiaz jarraitzen zen gero babarruna eta artoa erein ahal izateko.

Martxoan, behi azpitarako, bi hilabeterako edo, beharko zuten horbela eta garoa gurdiz garraiatzen zuten.

Karobia eta ipuia

Altzola eta Laurgainen, gero artoa ereiteko lurrean botatzeko kare harri erretze lana ere hil honetan egiten zuten.

Karobia eta karobi zuloari buruzko berriak, Joakin Alustizari esker, Laurgainen *Landarbide* baserrian jaso ditut.

Karobiko lana auzoko bi edo hiru familiren artean egiten zuten, gastuak ere eta karea guztien artean banatzen zuten.

Karobiko sua egiteko, bi gizonen artean, trontza zerraz arbolak ebaki eta enborrak egiten zituzten. Era berean, aixkoraz eta ote segaz, ohizko sega baino motzagoa eta bi aldiz lodiagoa, otea biltzen zuten.

Enborrak eta otea idi parez tiratako gurdiz garraiatzen zituzten. Gurdiak kargatu eta prestatu hala, garraioa karobi zulo ondoan husto eta uzten zuten.

Karobirako karaitza *Azpitarte* eta *Erreizta* lehena Aiako lurretan eta bigarrena Laurgainen kokaturiko harrobietatik atera eta garraiatzen zuten.

Garraierako idi parez tiratua, behar hainbat aldiz kargatutako gurpildun gurdi handia erabiltzen zuten.

Harginak kare harriz gangatzen zuen karobia (honi giltzatzea esaten zitzaion). Azpikaldean zulo bat uzten zioten suak arnas har zezan. Labe honek ataka bat zuen eta bertatik txardangoaz sua zuzpertzten zuten. Ataka honen parez pare bi *lehio* zituen karobiak; bata otesartzaile eta egursartzailearen arrantxorako ogia eta gazta uzteko eta bestean zato ardoa. Langile hauek, karobiko harria erretzen zen denboran, hiru edo lau egunetan, lau ordutik lau ordura txandatzen ziren. Esan behar dugu egursaltzaileak, orohar, sei edo zortzi zirela.

Ataka azpian zulo bat zuen tiro bezala eta sutako hautsa bertatik ateratzen zuten girten luzedun egurrezko pala edo perekiarekin.

Ganga gaina karobi ahoz goitik larogei bat zentimetro gainera geratuko zen harri beraz kargatzen zen. Gainera harri hau txikiagoa zen *kaskajoa* eta kono gisa egiten zuten (Berastegi, Aldaba eta beste zenbait lekutan galdorra deitua). Gain gainera, besteak baino handiagoa, harri luzezka ipintzen zuten. Hau izaten zen karobi erretzearen ikuspindua. Erre heinean harria jaisten hasten zen. Enetzeko prest zegoen karobiari karobi giltzatua esaten zitzaion.

Karobi, piztu baino lehen, apaizak mezalaguntzailearekin bedeinkatu egiten zuten. Herri batzuetan, bedeinkazio hau karobia piztu eta gero egin ohi zen, baso bat ur eta erramu bedeinkatuz.

Enbor eta oteei atakatik ematen zitzaaien su. Horretarako Kandelario egunean bedeinkatutako kandela piztua erabiltzen zen. Su eman eta gero, zaitzaile batek honela esaten zuen: *Ea suerte on batekin erretzen dugun!*

Zortzi bat egunez, euriak ez bustitzeko egurrez eta otez estalita, karea hozten uzten zen. Denbora honetan, erretzaileek eta ardura zuten etxe bateko familiak bazkaria *karobi eztaiak* egiten zuten. Zenbait herritan afaria *galdor afaria* izan ohi zen.

Karobi zulo hustutzea goikoaldetik gurdian hustutzen ziren kopaotarez egiten zen.

Kare errea soroan pilatua uzten zen eta ura botatzen zitzaion kare bizia lortzeko. Honek erabilera ugari ditu baserrian: laborantzen luraren abono bezala eta zomorroak *zamuak* galtzeko.

Gai honetaz ipuiak hau dio:

Landarvide baserrian jaso. Leku ezezagun batetan karobia piztu eta gero ganga erortzen omen zitzaaien behin eta berriz. Gertakizuna herriko apaizari azaldu omen zioten. Honen eskuharmenak ez zuen ezertarako balio izan ez; ez Jaungoikoarentzat eta ez deabruarentzat. Hau ikusita, azti batengana jo zuten eta honek Anbotoko Señorarengana bidali zituen. Honen aurrean bisitariek, aurrez aurre, aurpegi emanez egon behar zuten, atzea ematea mesprezutat hartzen bait zen.

Dama, bere koba zuloan, irule lanetan ari zen, aholku bila zebilena iritsi zenean. Arreta handiz entzun zion arazoaren azalpena eta honela esan zion: *Zuk harriak atera eta karobia garbitu behar duzu; hondo hondoan apoa ezpainetan ogi zati bat duela aurkituko duzu. Atera eta, harriaren erretzeak dirauen artean, ziri batean sartuta karobi ondoan utziko duzu.*

Hau entzunik, berehala, Damaren egoitza utzi zuen. Errezelotsuki atera zen eta Anbotoko Señorak hau bota zion: *Ai madarikatua!, baten batek ederki akontsejatu hau.*



Aitzola auzoa Aian

Hargin baten itune

Karobia prestatzeko lanetan harginarena aipatu dugu; ikus dezagun orain 1627ko, ofizio honetako ikasle baten kontratoak zer dioen:

«Escritura de aprendiz otorgada entre Francisco de Marrubiza maese cantero y Joanes de Lizarraga y su madre.

En la villa de Tolosa a veintiún días del mes de abril de mil seiscientos veintisiete años, en presencia de mi Joanes de Lizardi escribano público de S.M. y del número de ella y de los testigos de yuso escritos, parecieron presentes de la una parte Francisco de Marrubiza maese cantero y de la otra María de Munuqui, viuda de Domingo de Lizarraga, y Joanes de Lizarraga su hijo, todos vecinos de la villa de Amasa, el dicho Joanes con licencia materna pedida y obtenida de la dicha su madre de que yo el dicho escribano doy fe y usando de ella ambos de mancomún y a voz de uno y cada uno (...).

E dijeron que entre ellos estaban concertados en esta forma que por cuanto el dicho Joanes de Lizarraga estaba en servicio del dicho Francisco de Marrubiza un año trabajando y enseñándose el dicho oficio de cantero, haya de servir de aprendiz otros dos años y medio comenzados a correr desde hoy día de la fecha de esta escritura en adelante, y que el dicho Francisco le haya de enseñar el dicho oficio de cantería lo mejor que pudiere de manera que en él quede hábil y que durante el dicho tiempo le haya de tener en su casa y darle de comer y cama a su costa y la limpieza y más cinco ducados en dinero en cada año, y acabados los dichos años las herramientas que ha menester un oficial cantero para trabajar y ganar jornal, y que con esto sea por cuenta del mozo el vestido y calzado. Y de que durante el dicho tiempo no se ausentará de la casa y servicio del dicho maestro, y si lo que Dios no lo permita, si se le hiciere alguna enfermedad y estuviere en la cama, después le haya de servir dos días por uno que estuviere enfermo y sin trabajar, y bajo las dichas condiciones y cada una de ellas, dijeron que se obligaban cada uno de ellos con sus personas y bienes presentes y futuros de guardar y cumplir lo que de su parte le toca en todo y por todo (...). Y por consiguiente, el dicho Joanes de Lizarraga, por ser menor de los veinticinco años, aunque mayor de los dieciséis, juró por Dios nuestro Señor y Santa María Su Madre de que habrá por bueno y firme esta escritura en todo tiempo y no irá contra ella, alegando fuerza, temor, lesión ni menoridad ni otra causa ni razón alguna pensada o no pensada (...), y lo otorgaron así siendo testigos Bartolomé de Luzuriaga y Andrés de Goicoechea y Joan

de Alquiza, vecinos y estantes en esta villa y los otorgantes lo que sabían lo firmaron y por lo demás uno de los dichos testigos y yo el dicho escribano doy fe conozco que los dichos otorgantes»¹⁴.

14. Gipuzkoako Protokolo Artxiboa (Tolosa). 171. Leg. 1627. urtea, 215. orria.



Altzolako apaiztxea

Aste Santua eta Bazkoa

Garizumako igande arratsaldetan, Altzola eta Laurgainen Galbario edo Gurutzebidea errezatu eta kantatu ohi zen.

Asteazken Santu, Ostegun Santu eta Ostiral Santu arratsaldean, Laurgainen *Tinieblak* eta altzolan *Teniolak* elizkizunetan, mutilek etxetik ekarritako edo sakristauak utzitako matraka eta sakristauak elizako matraka antzeko instrumentu handi bat jotzen zuten.

Altzolan Bazko larunbatez *Paskoa Zapatua* eliz atarian *zimeteria* bazko sua egiten zuten. Sua suharri bidez lortzen zuten eta erramu igandez bedeinkatutako erramua botatzen zioten. Apaizak sua eta bi ur bedeinkatu ontzietara botako zuen txarro batetako ura bedeinkatzen zituen. Ur honetatik baserri bakoitzekoak botela bat edo bi bete eta etxean izaten zuen gero urtean zehar, edozein egunetan, soro eta lurak eta ganadua bedeinkatzen zuten; horrela, baserria gaitz guztietatik zainduz.

Laurgainen, Bazko larunbata goizez *Paskoa Zapatua* zuharriz sua pizten zen eta ongarri bezala egurrikatza botatzen zioten. Ondoren, apaizak urtegi txiki batetako, eskua bertan sartu eta gurutzearen seinalea eginez, bedeinkatzen zuen. Sakristauak ur honetatik txarrokada jaso eta pontean utzi eta gainerakoa ur bedeinkatu ontzian husten zuen.

Altzolan eta Laurgainen ere, sakristauak edo monagiloak, su berrian, kandela bat pizten zuen. Ondoren apaiza, prozesioan aldareraino, eliz barruan sartzen zen. Kandela horrekin aldareko kandelak pizten zituen. Jarraian Aintza kantatzen zuten panpaiaz batera. Auzo hauetako familia bakoitzak bedeinkatutako sutik, ontzi batean, su berria eramaten zuen etxera eta *Su zahar su berri* esanaz sutan sartzen zuen.

Zozomikoteak

Martxoari agur esanaz eta Apirilaren haseran *zozomikotek* Altzolan eta *zozomikoteak* Laurgainen.

Zozomikote egunek, tristeak eta ilunek esan zidaten behin batez, Araitz bailarako Nafarroako Azkaraten.

Zozomikoteak salbuespen eta duda muda batzuekin, Euskal Herriko eta kanpoko herri batzuen kondairari atxikiak dira.

Nire ustez, *zozomikoteek* alderdi moralizatzailea dute. Artzaiaren be-rekoikeria eta esker txarra salatzen ditu eta Martxoari emaniko hitza ez bete-tzeagatik zigorra.

Artzaiak Martxoari bere ardirik onena agindu omen zion eguraldi ona egi-ten bazion. Azken egunetan agindua ahaztu eta farra egin zion.

Martxo, martxo; ez haiz ganadu ederra izan, baina nere ardi txarrenak errez egiten zioke errekarari salto.

Orduan Martxoak Apirilari: *Ekaizkidak bi egun da erdi*. Ondoren euria hasi omen zuen eta errekarari urak artzaiari ehun ardi eraman. Hau ikusirik, artzaiak aharia lepoan hartu zuen esanaz: *Hau ezteke eramango*. Baina ahariak buruari eraginda adarrarekin artzaiari begia atera zion. Hau honela gertaturik, artzaiak esan omen zion errekarari: *Hau ere eraman behar badeke, eraman zak*.

Jasotako kondaira hau Altzolakoa da. Laurgaingo *zozomikoteen* kondaira bitxia eta harrigarria iruditzen zait.

Martxoa ona omen zihoan zezen bat elorri baten azpian marruz ari zenean. Martxoak hau entzunik bere azken bi egun terdiak txartu egin zituen eta Apirilari beste bi egun terdi eskatu *arantz azpiko xexen horri irrintzik egi-teko gogoia kentzeko*.

Egun horiek pasa artean, bada ez bada ere, zintzarri bete belar ondu izan behar zela zezenak esan ziola aipatzen da.

San Markosen jaia eta konjurua

Arriarte baserrian jaso eta beste herri batetan baino gehiagotan entzuna, larrebehiak San Markos, Apirilaren 25a, bitartean gutxienez, zintzarri bete lasto izateko eskatu zuela. Garai horretan ez bait dira, oraindik, igaro neguaren arrasto mingotzak.

Altzolan aipatzen da *San Markos larru zalea zela*. Honekin esan nahi da: San Markos egun arte ez zela kendu behar, elurra zenean bi hanka larruz lotua, aterki orde, eramaten zen ahuntz edo ardi larruzko estalkia.

San Markos goizean, Laurgainen parroki elizatik prozesioa ateratzen zen lehendabiziko gurutzeraino; hau elizatik gertu *Abade potzuan* zegoen. Gurutze honi hamabost bat zentimetrotako beste bat itsasten zioten eta bere aurrea ihiez estaltzen zuten.

Herri otoitz aldi honetan eguraldi ona eskatzen zen. Hemen Altzola bailaran Semeola baserriko amonak egiten zuen eta nik nire *Ritos de Solsticio de Verano. Festividad de San Juan Bautista* liburuan jasotako konjurua aipatuko dut. Horretarako, estola gisa, bere senarraren gerrikoa hartu eta leihotik ekaitza zetorren aldera begiratu eta honela esango zuen: *Karga Izarraitz, deskarga Ernio, guarda Altzola, en demas Semeola*.

Semeolako konjuru botatzailearen otoitza, eguerdian eta gauean, mahaiean eseritzean hau izaten zen: *Gure Jaungoikoak eman deigula osasuna eta pakea, eta goiz-arratseako esnia eta eguerdiako eltzea haragiz betea*.

Apirilean, gure laborariak artoa eta babarruna ereiteko lurra prest jartzen du. Horretarako burdinazko lanabesa, *karamorroa* (Altzolan) *karramarrua* (Laurgainen); zazpi hortzekoa *zazpikoa*; alperra eta lurra markatzeko *lau-hortzekoa* erabiltzen zituen. Ereite lana Maiatzean egin ohi zuen.

Santa Kruz eguna

Maiatzaren 3a, *Santa Kruz eguna*.

Egun honetan, goizean, bailara hauetako familia bakoitzeko bat *elorrarantza zuriz* eginiko gurutze sortarekin elizara joaten zen. Zeinek sorta dotorea-goia eraman ahaleginean, elorrantza loradunez egiten saiatzen ziren. Sorta sahas lotua eramaten zen eta erdiko gurutzea luzeago uzten zuten, bedeinkazio aurrean, zutik izateko.

Prozesioa Altzolako elizatik atera eta hilerriko gurutzearen bueltan izaten zen. Hemen bedeinkatzen zituen apaizak lurrian zutikatutako Santa Kruzetako elorri gurutze sortak.

San Roman elizara itzuli eta ondoren, Meza Nagusia izaten zen eta bukeran gurutzeak etxeratzen ziren.

Artoa eta garia ereindako soroan ipintzen zen, erramu bedeinkatuaz batera, gurutze hauetako bakoitza. Eginkizun hau txapela kenduta, Aitagure bat errezatuz, etxeko edozeinek egiten zuen.

Laurgainen prozesioan elizatik Kalbarioraino joaten ziren, lau Ebanjelioak errezatu eta, gaur hutsik dagoen, *Bizkar* baserriraino, jarraitzen zuten. Hemen apaizak lurrian zutikatutako gurutze sortak bedeinkatzen zituen.

Geroago, parroki elizan, errosarioa errezatu eta meza izaten zuten.

Maiatzaren zehar, txapela kenduta eta Aitagure bat errezatu ondoren, bedeinkatutako erramu hosto bat edo pare batekin ipintzen zituzten Santa Kruzetako elorri gurutzeak garisoroetan, artasoroetan eta baratzetan. Sukaldeko tximini kanpian eta ikuiluan (hemen erramu gabe) ipintzea ez zen ahaztu behar.

Elurzuloak

Tolosako herria elurrez ornitzeko hitzarmen batek Altzolako Nevera base-
ria eta elurzuloak dakarzkiz burura. Delako hitzarmen horrek honela dio:

«En la villa de Tolosa a primero de junio de mil setecientos noventa y siete, ante mí el infrascrito escribano Real y del número de ella, testigos infrascritos, parecieron presentes de la una parte Francisco de Arcelus, y de la otra Joaquín de Jáuregui y Juan Ignacio de Aramburu, vecinos de esta villa. Y dijeron que el citado Arcelus está obligado a hacer la provisión de nieve para esta citada villa, nueve lugares y barrios de su jurisdicción, en virtud de escritura otorgada por mi testimonio el día trece de febrero de mil setecientos noventa y uno, bajo ciertas condiciones, y entre ellas con la de que en el año o años que sucediere el no caer en las inmediaciones del hoyo de la nevera de esta villa bastante nieve para hacer el acopio de ella e introducirla en dicho hoyo, fuese de la obligación del citado Arcelus el hacer dicha provisión trayendo la nieve de los montes de Aralar o neveras de las villas de Azpeitia y Urnieta o de otra cualquiera república que estuviese a cuatro leguas de distancia desde esta villa, pagándosele en este caso por los que la compraren cuatro cuartos por cada libra de la tal nieve. Y respecto de que en el presente año le es preciso acudir a los citados parajes o a otros para cumplir con la expresada provisión según está obligado, en atención a que no nevó en el invierno pasado lo suficiente para recoger y poner dicho hoyo, se han convenido y eran conformes en que los referidos Joaquín de Jáuregui y Juan Ignacio de Aramburu hayan de hacer dicha provisión de su cuenta y cargo empezando desde hoy día hasta primero de Noviembre del presente año, entregándoles por vía de gastos y costas que se les pueda ocasionar trescientos y cuarenta y cuatro reales de vellón ahora de presente, por lo que dichos Jáuregui y Aramburu, los dos juntos de mancomún de voz de uno y cada uno de por sí y por el todo in sólido, confesando como confiesan que ante mí el dicho escribano y testigos de esta carta reciben de manos de dicho Arcelus los prevenidos trescientos y cuarenta y cuatro reales en monedas corrientes, de cuya real entrega, numeración y recibo hago fe, y le otorgan su carta de pago en forma, se obligan con sus personas y bienes a hacer dicha provisión de nieve trayéndola de su cuenta y riesgo al cuerpo de esta villa, de los montes de Aralar o neveras de Azpeitia y Urnieta o de otra cualquiera parte que hubiere a cuatro leguas de distancia desde esta referida villa y venderla de su cuenta y cargo a razón de cuatro cuartos cada libra, sin que en ello haya falta alguna, para lo cual se constituyen en el mismo lugar, derecho y obligación que tiene dicho Arcelus, dejando a éste libre de todo, y cuando por omisión, descuido o en otra forma resultase

algún daño y perjuicio al susodicho le subsanarán con todas las costas que tuviese, quedando, sin embargo, subsistente y corriente esta obligación hasta el citado día primero de noviembre, queriendo sean apremiados a su cumplimiento por todo rigor de derecho. Y para que esta escritura tenga su debido efecto como si fuese sentencia definitiva de juez competente pasada en autoridad de cosa juzgada que la reciben por tal, dieron su poder a los jueces y justicias de S.M. de cualesquier partes que sean, a cuyo fuero, jurisdicción y domicilio se sometieron y renunciaron el suyo propio (...), siendo testigos (...)»¹⁵.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere bazuten elur tratu arazoaren jabetza eta berri.

«La comisión de Obras públicas encargada de emitir su dictamen acerca de la solicitud de D. Juan José Arrascaeta, vecino de la villa de Irún, sobre que se le exonere del pago de los derechos del puente de Behobia por los carros que conducen nieve en menor cantidad de diez quintales, es de opinión que careciendo esta solicitud de todo documento que acredite los extremos que expresa, debe pasar a la Diputación para que adquiriendo los antecedentes sobre los hechos que expone y practica en la cobranza de derechos de gabarra, resuelva lo que tuviere por conveniente y fuera justicia. Tal es el modo de pensar de la comisión (...)»¹⁶.

15. Juan Garmendia Larrañaga: *Gremios, Oficios y Cofradías en el País Vasco* 1979, 98-99 orri.

16. Juan Garmendia Larrañaga: *Gremios (...)*, 99. orr..

Gorpuzti eguna

Altzolan, Meza Nagusiaz ematen zitzaion hasera Gorpuzti Egunari, *Korpus eguna*, eta arratsaldean, hiruretan, Bezperak erreztatu ondoren, elizan bueltan egiten zen prozesioa ateratzen zen.

Sakristauak edo serorak botatako larrosa hosto, ihi eta miluz eginiko bidetik prozesioa egiten zen bitartean, elizdorreko kanpaiak, eten gabe, jotzen zituzten gazteek. Laurgaingoek ere berdin egiten zuten.

Azken urtean Komunio Txikia egin zuten bi neska edo mutil Jaunaren aurretik joaten ziren larrosa hostoak boteaz eten gabe. Esan beharra dago delako Komunio Txikia zazpi edo zortzi urterekin egiten zutela.

Laurgainen prozesioa Meza Nagusi ondoren egiten zuten. Hemen, aipatu beharra dago, maiordomoen zereginetan arautua zegoela zeintzuk eramango zuten palioa. Jaunaren bedeinkazioa, eguraldiak laguntzen bazuen, *Tolare* baserri ondoan ipinitako aldarean edo bestela, eliz atarian ipinitakoan egiten zen.



Santa Engraziko ermita

San Juan

San Juan eguna baino egun batzuk lehenago Altzolako eta Laurgaingo familia bakoitzak arba, lar eta otea astoan kargatu eta bidegurutze jakin batetara eramaten zituen solstizio sutan erretzeko.

Ekainaren 23an baserri bakoitzeko emakume bat edo gehiago San Joan lore, krabelin, lirio eta ezpata bila atera ohi zen.

Ilunabarrean, ordu beretsuan, bidegurutzetan San Joan sua pizten zen. Aurreko urteko San Juan egunean, Meza Nagusian, bedeinkatutako San Joan sorta erregai izaten zen. Suari erramu eta ur bedeinkatua botatzen zitzaizkion. Ondoren, Altzolan, Aitagure bat errezatzen zen San Juanen izenean, *Paternoster bat San Joanen izenerako*. Altzolan eta Laurgainen ere sua ospatu da eta ospatzen da. Altzolan *San Joan txiki*, *San Joan handi*, *Biba San Joan handi* eta Laurgainen *Biba San Joan txiki*. *Biba San Joan* ohikatuz jauzi egiten dute su gainean.

Bidegurutzetan egiten diren su hauek Altzolako beste ohitura bat dakarkidate burura; hil berriaren lastaria eta gauzak erretzen zirenekoa.

Altzolako nere berriemailetako batek, Jose Antonio Uranga Artola, Aiako Urdanetan, bere aurrekoengandik jaso du eguzkiak San Juan Goizean dantza egiten zuela. Esan beharra dut honelakorik ez antzekorik ez dudala jaso ez Altzolan eta ez Laurgainen.

Altzolan gogoan dute, beraien aurrekoek Ekainaren 24ean, eguna argitzen zunean, hanka hutsik, belazetan ibiliz, osasungarri zelako, goizeko ihintza hartzen zutela.

San Juan goizean, Altzolan eta Laurgainen, aizkoraz lizar adarrak ebaki, gurutzeak egin eta baserritako eta bordako atearen bi alboetan ipintzen zituzten. Altzolan Paternoster bat errezatzen zuten lizar adarrak ipintzerakoan. Laurgainen, lizar adarrekin gurutzeak egiteko, Erramu igandez bedeinkatutako erramu adarra erabiltzen zuten.

Lizar adar hauek gaur egun ere jartzen dira, tximista uxatzen baitute.

San Juan goizean bi gariburu, arto landare eta sagar adar txiki bat bere frutarekin biltzen zituzten. Guzti hauekin eta bezperan bildutako loreekin San Joan sorta egin, ezpatekin bildu eta zinta zuriz lotua Meza Nagusi bukaeran bedeinkatu eta etxeko ganbaran lehortzen uzten zuten. Ekaitza zenean, sorta honetako zerbait eta erramu adar bedeinkatua erre eta kandela bedeinkatua pizten zituzten. San Juan sortatik geratzen zena hurrengo San Juan sutan erretzen zuten, aurrez esan dugun bezala.

Altzolan San Juan goizean, goizeko bederatzitan, elizatik errogatiba prozesioa ateratzen zen *Azkarate* baserri ondoan dagoen gurutzeraino. Bertakoek jai horretan gurutzea larrosa, krabelin eta margaritaz, erdian lirio bat zuela, apaintzen zuten. Errogatiba hau joan den hogeitau urte hauetan ez da ospatu.

Altzolan, Amabirjina Errosarioko kofradia

San Joan sorten bedeinkazio ondoren, eliz atarian *zimeteria* XIX. mendean sortutako Amabirjina Errosarioko Kofradia biltzen zen.

Habiéndose establecido en esta iglesia parroquial de San Román de Altzola la Cofradía del SSmo. Rosario de Nuestra Señora, por el Illmo. Señor Dn. Joaquín de Uruci y Lasaga, obispo de Panplona, en Su Santa visita personal del año mil ochocientos diez y ocho.

Y en cumplimiento de lo mandado por S.S., y se procedió al nombramiento de mayordomo de ella, y quedó nombrado como tal para el año de mil ochocientos veinte y dos, Antonio de Furundarena¹⁷.

Baserri bakoitzeko gizaseme bat partaide zela egiten zen batzorde erlijioso honen urteko batzarra. Bertan, maiordomo berriaren kontura, ogia eta bi litroko pitxar pare bat ardo, basotan serbitua, gosaltzen zuten. Maiordomaren izendatzea koskan egiten zen, baserri guztien artean, urteetan zehar ezarririko ohitura-legearen arauera.

Baserri bakoitzak Kofradiari, urtean, lakari bat arto eta beste bat gari ematen zion; hau Kofradiko artoa eta Kofradiko garia ziren; maiordomoari eliz atarian ematen zitzaion eta honek saldu edo, merkatuko prezioan *prezioak korritzen duna* etxerako geratzen zuen. Diru horrekin bailaran hildakoen alde mezak ateratzen ziren eta geratzen zena hurrengoari pasatzen zitzaion.

17. A.H.D. Altzola de Aia. Cofradía del Rosario. A.4.1.

Sendagintza herrikoa

Askotan esana dut udako solstizio inguruan egiten diren ospakizun ugariak natur azalpenen erritu direla. Sineskeria eta petrikilo-sendagiletzara hurbiltzen gaituzte. Hauetako asko Laurgaingo *Landarbide* eta *Orbelaun* baserrietan eta Simon Azpiazurengandik, auzoko azken errotaria, jasoak ditut.

Pertsona eta ganaduari garatxoak kentzeko pita belarra hartu, erdibitu eta erdi bati mintza kentzen zaio. Hau gaisoari zapi batez lotzen zaio. Bi edo hiru egunetik, garatxoak desagertu arte, errepikatu behar da (Laurgainen *Orbelaun* baserrian).

Garatxodun pertsona bat, berak jakin gabe, zenbat eta gehiagotan hobe, harri azpian dagoen apo baten aurretik pasatzen bada, zortzigarren egunerako desagertuko zaizkio garatxoak (*Orbelaun* baserrian).

Gero bidegurutze batetan botako dugun txanpon batekin igurtzita garatxoak desagertzen da (Laurgain, *Landarbide* baserria).

Oheratzerakoan, hiru egunetan jarraian, tipularekin egositako litro erdi esne, katilu edo basoan hartuta katarroa sendatzen da (*Orbelaun* baserria).

Katarroa sendatzeko karraskiloaren ezpal bat egositako uretik, bi egunetan oheratzerakoan, hartu behar da (Simon Uranga Azpiazu).

Katarroa sendatzeko idi mingain *iri mingain belarrak* deituriko belarrak ebaki eta uretan egosi; bi egunetan oheratzerakoan ur hortatik baso bat hartu behar da (Simon Uranga Azpiazu).

Ganaduen behatzarteko zibela sendatzeko, ganadua lur biguina eraman eta hanka gaixoaren oinatza aitxurrez jaso eta lehortzen, sukaldeko tximini kanpaiaren apalean, utzi behartzen zen. Lurra lehortzean ganadua sendatzen zen (Simon Uranga Azpiazu).

Ganaduaren garatxoak kentzeko, pote bat apo bizi bat barruan duela, ganaduaren buru parean zintzilikatu, apoa hiltzen denean garatxoak desagertzen dira (*Orbelaun* baserria).

San Paulo eguneko errogatiba

Ekainaren 29an, San Paulo eguna, Laurgaingo elizatik, auzoko Santu honen izeneko ermitara errogatiba egiten zen. Ura bedeinkatzen zen eta bertaratutako bakoitzak botella batean etxera eraman, ur bedeinkatu ontzian bota eta gainerakoa gaixo zeuden ganaduen gainean botako zuen sendatzeko, baina etsipenezko esaldi hau esanez: *San Paulok sendatu dezala konbeni baldin bada*.

Baserriko laborantza lanetara itzuliz, Ekainean *Garagarrila* aiturraz artoa eta eskuz garia jorratu eta segaz ebakitako belarra ondu ohi ziren.

Belar ebakitze eta ontze lana Uztailean ere egiten zen. Uztailean ere garia igitaiez ebaki, lastoz lotuta balak egin eta metetan pilatzen ziren. Ondoren gari balak *garikuak* gurdiz sapaia garraiatzen zituzten. Garijotzea, ordu pare batez hobeto lehortzearen eguzkitan edukita, gizonen ganbaran egiten zuten.

Garijotzea zenbat gizon hainbat gari jotzeko harritan egiten zuten. Langintza hau Altzolan gari *jotzea txanketan* eta Laurgainen *gari jotzea harrian* izenarekin ezagutu da. Gari jotzeko harriari, zenbait lekutan, Azpeitiako Loiolan esate baterako, txanketa deitu zaio.

Garia ganbarako solairuan geratzen zen eta lastoa sapaian. Lastoa ganaduren ongarritarako eta gauez sututa, Altzolan *lasto-zuzia* eta Laurgainen *lastaikua* basoan ibiltzeko argi egiteko erabiltzen zen.

Gari jotzea elkarlaguntzaren ezaugarri nabarmena zen. Etxeko eta sendikoen gain auzoko baserrikoak lanak irauten zuen egunetan, goizeko hamaike-tan hasita, bi edo hiru orduz aritzen ziren.

Garijotzaileei bazkaritan babarrunak, haragia, bakailaua, arroz esnea, ardoa, kafea eta kopa anisa edo koinaka ematen zitzaizkien.

Errotak

Altzolan ez zuten errotarik eta alea ehiotzera Zestoako *Errota-Barrenera* eramaten zuten. Anega ale ehiotzeagatik, errotariak *errotariaren laka* (hitz hedatua) saria jasotzen zuen; lau kilo zereal ale.

Laurgaingo baserrietako aleak *Agorriako* bi errotetan ehiotzen ziren. Bi errota hauek, bakoitzak bere presa edo andapa zuela, bata bestearengandik larogei bat metrotara zeuden.

Goiko errotan artoa ehiotzen zen eta *beheko errotan* garia. Agorria baserriko 1793, 1794 eta 1795eko kontu liburuan honako hau jasotzen da:

«Por el acarreo del nuevo pesebre al segundo molino, por haberse inutilizado del todo el anterior, su manufactura, composición de tres cellos de fierro, irá voluntariamente haciendo gracia de algunos jornales en beneficio del sr. amo, se le abonan seis pesos (...).»¹⁸.

Agorriako Goiko errota Gipuzkoan, era horretakoetan handiena zen. Bere goiko hariak diametroan metro eta hirurogei ta iru zentimetro ditu.

Nire informatzailearen garaietan, Simon Uranga, azken errotaria, errotari pikatze lana bere aitagiarebak, Jose Maria Manterola Arregi, egiten zuen. Hau Aian jaioa eta Laurgainen berrogei urtez errotari izan zen.

Harri pikatze lanean, Manterola Arregi errotariak altzairuzko *galtzairuba* kutxilak mailuz jo eta errotarriaren kanalak harria pikatzeko erabiltzen zen argin mailu batez zaintzen zituen.

Laurgaingo errotariaren laka, ehiotako ehun kilo artoko, hamar kilo arto eta ehun kilo gariko, zazpi kilo. Gora behera hau artoak ehiotzerakoan galera handiagoa izatean zetzan. Hau da: ehun kilo arto ale ehiota larogeita hamar irin geratzen dira beraz, hamar kilo lakakoak bost kilo aprobetxagarri. Garian

18. Laurcaingo Jauregi Etxeko Artxiboa.

berriz, merman bi kilo galtzen zirelako, bost kilo geratzen zitzaizkion errotariari.

Ezaugarri hauetako errota gizon batek eramaten zuen, errotariak. Uztaila eta Abuztua izan ohi ziren garia ehiozko hilak. Udarazkenean eta neguan errotaria artoa ehiozzen aritzen zen. Orain berrogei urte, garia halako bi arto ehiozzen zen.

Zortzi orduko ehiozke lanean, ehunda berrogeita hamar kilo arto edo hirurehun kilo gari, zereal samurra, ehiozzen ziren.

Agorriako errota hauek duela hogeitabat urte utzi zioten lanari. Urtean, ohi-turari jarraiki, itxi edo ixildu Eguberri, Ostegun Santu eta Ostiral Santu egunetan bestetan ez zuten egiten.

Errota alde batetara uzteko Pello Errotari eskeinitako bertso hau dakargu:

Hamaika alper mantentzen du
errotaren trangak
zakuari kenduaz
doblatuan lakak.
Inpernuko atian
a zer muturjokak,
Pello istilu txarren bat
ikusteko daukak.

Errotaria ez zen ondo ikusia bere auzokideen artean, ez zen hauen begikoa. Herriaren ustetan, egun haizetsu batetan norbait ez gustokoa hil zela adierazten bazen, *errotaria hil dek* esan ohi zen.

Abuztuan harbia erein *Sanlorentzotan harbia egin* eta bibelarra ebaki eta ondu ohi dira.

Laurgainen, mutil-ardoaren elkartea eta Andra Mariaren jaiotzea

Irailaren 8an, Andra Mariaren jaiotze eguna, arratsean Laurgaingo *Mutil Ardo* elkarteko gazteak *Tolare* etxean bildu eta *giltzeroen* elkarre horretako arduradunen izendatzea egiten zuten; hauek hogeita bi urtez goiko bi mutil izaten ziren. Izendatze hau karta banaketan *Bateko Urrea* tokatzen zitzaienen gain erortzen zen.

Giltzeroek festa ospakizunen ardura izaten zuten. Beraiek ordezkatzeko zuten gaztediaren gain zihoan soinujole eta, edozein ordutan, bai plazan eta bai *Tolare* etxean zeudenei zerbitzen zitzairen ardoaren gastua. Ardoa zahagi edo barriketan ekarri eta aipatu etxeko gela batetan jasotzen zuten. Bertako giltzak *giltzeroek* izaten zuten. Ardo banatzea behar hainbat aldiz betetzen zahatoan *Mutil-Ardoko* partaide batek egiten zuen. Ardo dastatze hau Aiako eta bailaretako festetan *Mutil-Ardo* bazkideek goza ahal izaten zuten.

Festa bigarrenetan, oilasko jate ondoren, *giltzeroek* Elkarteko kontuak ematen zituzten eta bertako bazkideek zegokiena ordaintzen zuten; hogeita bi urte baino gazteagoek, soldadutza egin gabekoak, zaharrek ordaintzen zutenaren erdia ordaintzen zuten.

San Migel jaia

Mutil-Ardoa elkartearen aipamenez, Laurgaingo San Migelak, bailarako zaindari jaien, orain dela berrogei bat urte egiten zen, programara gatoz.

San Migel bezperan, maiordomoaren zereginetako bat, Laurgaingo eliza garbitzea zen.

Irailaren 29a, San Migel eguna, goizeko zazpiterdietan lehen meza izaten zen. Geroago, Meza Nagusia baino lehen, Aiako txistulari eta danborreruek bidez zituzten baserriak alaitzen zituzten. Ate aurrean pieza bat edo beste jotzen zuten eta baserrikoek gailetak edo ogia eta ardoa ematen zieten.

Meza Nagusia amaitu eta txistulariek, eliz atarian, ohizko prozesioari itxoiten zioten eta bere aurretik joaten ziren *Martxa* joaz.

Prozesio ondoren, txistulariek kontzertua eskaintzen zuten. Gero soinujo-tzaile baten aideaz dantza soka eta sueltoan dantza egiten zen. Bertsolarien saioak amaitzen zuen Laurgaingo plazan eguerdiko jaia.

Berriro gogoratuko dugu maiordomoak bere baserrian izaten zituela bazkaltzen txistulariak eta dantza soka aurreko eta atzeko aureskulariak. Bere konbidaduak ziren baita Altzola eta Urdanetako maiordomoak; bere hauen bailako jaietan izango zen bezala. (Ikusten denez, ahozko tradiziotik at gertzen dira hemen aipatzen ditugun zenbait ohitura).

Arratsaldean, txistulariak eta soinujo-tzailea ziren jaiaren alaigarri. Eguraldia txarra bazen, festa aipatu *Tolare* baserriko mandioan egiten zen; bertako algarak eta festa giroak ez zuten Abe Maritakoa *Aimakua* entzuten uzten.

San Migel biharamonean, gazteak goizeko meza entzun eta oilasko bil-tzera ateratzen ziren, baserri baserri soinujole eta koplariak lagunduta. Aurrez aipatu dugu beraien jazkera eta bi gaztek eramaten zuten oilaskoak hanketatik zintzikatzeko agaia. Zenbait etxetan oilasko ordez dirua ematen zieten.

Baserrietako sarreran, bereiziki neska ezkongaiak zeudenetan, bi edo hiru pieza dantzatzen zituzten. Lutoa zutenetan orazioa izaten zen agurra eta errespetoz eta ixilik joaten ziren.

Arratsaldean oilaskoei lepo moztea egiten zuten, parte hartzaileen begiak estalita. Hau ez zuten urteoro egiten.

Gauean, *Mutil Ardoko* gazteak afaria, oilasko jatea, izaten zuten. Bertara auzoko guztiak konbidatuak ziren.

Iraila ez zen jai giro hutsa, bazen beste zerregirik ere: aitzurrez harbia jorratzen zen. Honen garraioa, Laurgainen eta Altzolan, berrogeita hamar bat, tamainuaren araberako, harbi ondo sortan lotuta, saski edo saski gabe, kartolak asto gainean jarrita egiten zen. Harbia ganaduaren janaritarako erabiltzen zen.

Artoaren lanetan, Irailean *Agorra* Altzolan mazorra eta Laurgainen *maizorria*, artaburua ikutu gabe artoari kentzen zitzaizkion hosto biltzea egiten zen.

Delako hostoak *artorriak* bildu, lotu eta artazuztarretan *artosortena* zintzilikatzen ziren lehortzeko. Zuztar bakoitzean hiru edo lau artalandaretako *artorriak* (Altzola) edo *maizorriak* (Laurgain) ipintzen ziren.

Mazorri edo maizorri biltze lanetan gizonak eta emakumeak aritu ohi ziren.

Artorri edo maizorriak lehortuta, sortak eginda gizonak bizkarrez eramaten zituen baserrira ganaduaren ongarritarako.

Segaz ebakitako garoz, gero ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen zena, garometak *garosuatsak* egiten ziren.



Laurgain Jauregia

Laurgainen, neska gazteen jaia

Urriaren lehen igandean neska festa izaten zen. Hau arratsaldean plazan edo Tolare baserrian soinujotzaileak alaitua izan ohi zen.

Urrian zehar, baserritarrak eskuz artaburua biltzen –*artaburua eskuz eten* (Altzola) edo *artaburua hautsi* (Laurgain)– eta baserriratzen zuen *arto etxeraztea*. Horretarako zestoak eta gurdia erabiltzen zituen.

Artaburuak ganbaran utzi eta ilunabarrean artazuritzea *artazorrua kendu* egiten zuten.

Artazuritze lan hau etxeko gizon eta emakume; zahar eta gazteak eta auzoko beste familietakoek *artozuritzaileak* egin ohi zuten. Artozuritzaile taldea aulkietan –*makuluak* (Altzola) edo *bankiluak* (Laurgain)– eserita, karburu argia edo petroleo kinkearen argitan aritzen zen.

Artazuritzaileen lanaren ordaina honako afari hau izan ohi zen: ardi haragiarekin egindako gisadua; bakailaua tomate edo piparrakin; gaztain erreak; ardoa edo sagardoa eta esnea.

Artozorroak pilatu eta ganbaran uzten zituzten. Ganaduaren janaritarako erabili izan dituzte.

Artaburuak zestotan *lepotarrak* botatzen zituzten gero ganbarako aldean –*ganbarila* (Altzola) eta ganbaila (Laurgain)–lehortzen uzteko.

Arto aletze lana etxekoena izan ohi zen. Alea zakuetan sartzen zen erro-tara eraman arte.

Irin honekin taloak egiten ziren sutan pala edo talobumian eta labean artoerreak edo artoak, taloak baino lodiago opil borobilak. Baserri lan hauek, orohar, duela hirurogei bat urte galduak dira.

Duela aspaldi galdutako ohitura elizkoi bat gogoratuko dut.

Urrian, Errosarioko hila, sakristauak egunoro Errosarioa erreztatzen zuen eta eliztar gehienek, gutxienez, hamar errosariotara joateko ohitura zuen.

Heriotzaren inguruko ohiturak

Laurgaingo sakristauaren zerreginetako bat sepulturetako argizagiak piztekoa zela ikusi dugu; Errosarioko kofradiko maiordomoak bere kidekoen artean, hiletetan, kandelak banatu behar zituen, e.a. Aipamen hauek pertsona baten heriotzaren aurrean zeuden ohituretara garamatzate, batez ere Altzola eta Laurgain bezalako bailara txikietakotara.

Gaisoaren herio larriaren aurrean, familiako batek apaizari dei egiten zion, honek Azken Igurtzia eman ziezaion. Laurgainen Sakramendu honen eramatea kanpaia hiru aldiz joaz adierazten zen. Apaizaren ibilaldia *sankristauak* adierazten zuen. Hau aurretik zihoan farola eskuan eta txintzarria joaz. Laguntzaile auzoko jendea, gizon edo emakumea, kandela eskuan zutela, joaten zen. Gaisoaren etxera iristean, etxeko jendea gehitzen zen eta guztiak belauniko, kandela eskuan zutela gaisoaren gelako ate ondoan geratzen ziren. Sakramendua eman ondoren usariozkoa zen apaizari eta *sankristauari* gazta, ogia eta ardoa ematea. Elizara bueltan sakristauak ez zuen txintzarria jotzen eta farola itzalita eramaten zuen. Esan beharra dut Altzolan, sakristau izenez zaharra edo gaztea ezagutzen zela; nahiz eta gazteari, monagiloari, mezalaguntzailea esan; Laurgainen ere berdin esaten zaio.

Heriotz bat gertatzen zenean, lehenik auzokoari ematen zitzaion berri. Hau, Altzolan eta Laurgainen, bailarako, etxetik gertuena zegoena zen. Esate baterako: Altzolako *Arriarte* baserrian, bi bizitzakoa, batarentzat beste bizitzakoa zen auzoa. Laurgainen ere berdin zen. Baserria bizitza bakarrekoa bazen, auzoa baserri hurrenekua; hau bi bizitzakoa bazen, harremanik gehiena zuena.

Hildakoaren etxera iristen zen lehena emakumea izan ohi zen eta berehala gizona. Hauek etxeko zerreginetan laguntzen zuten: egaztiei eta ganaduei jana eman, e.a.

Auzoko emakumeak garbitu eta jazten zuen hildakoa. Garbitzeko erabiltzen zuen ura egositako erramu bedeinkatuarena izaten zen. Hildakoa beltzez edo Ordena erlijioso habitoaz jasten zen.

Auzoa joaten zen apaizari aditzera ematera; honek hildakoaren etxera joan eta hilari bedeinkazioa botazen zion eta denbora berean, sakristauak edo serorak hil kanpaia jotzen zuen, poliki poliki. Laurgainen bost kanpai hotsekin agonia esaten zitzaion. Hildakoa haurra bazen, kanpai bera, baina azkarrago jotzen zen. Kasu honetan aingeru kanpaia esaten zitzaion.

Ilunabarrean hilaren etxera bailarako etxeetakoak joaten ziren eta belau-niko, hamabost misterioiko Errosarioa erreztatzen zuten. Apaiza edo bailarako emakume edo gizon bat izaten zen zuzentzen zuena. Gero etxeok bertaraturakoei gailetak, ogia, gazta eta ardoa eskaintzen zien.

Hildakoa bi suziri artean, kandela piztuekin, eta baso bat urbedeinkatua eta erramu bedeinkatua ondoan zuela mahai gainean jartzen zuten.

Gau bela *gau ila* etxeok eta auzokoei egiten zuten eta kafea eta pattrarra izaten lagungarri.

Goizaldean, gau bela *gau ila* bukatuta hildakoa kajan jartzen zuten.

Ohizko orduan hildakoa, bidea zenbatekoa zen, lau edo sei gazteren artean *gorputzjasotzaileak* gorputz bidetik gorputz eramatea egiten zen. Bidea libre izan behar zuen gorputzak. Etxetik atera aurretik kaja gainean, berehala itzaliko zen argizagi piztua *-bildumena* (Altzola) *pildumena* (Laurgain)– ipintzen zuten.

Gorputzaren aurretik emakume ezkongai bat *gorputzaren aurrekoa* joaten zen. Hau auzokoa zen eta ogi bat eta kandela eramaten zituen. Bere atzetik: monagiloa gurutzearekin; apaiza; gorputzjasotzaileak gorputzarekin; familiakoen ordezkari, hiru gizon *hiru produktok* kaparekin eta laguntzaileak *lagunak*. Hauen artean, alargunak ez beste familiakoak, harek ez bai zuen parte hartzen; pariente gizonezkoak, auzoko gizonak eta hiletetara zetozen gainerako guztiak joaten ziren.

Gizonen atzetik eta adierazi dugun era honetan emankumezkoak joaten ziren: lehenik hiru *produkok* mantu beltza gerrian kordoi batez lotua eta burutik belaur azpira iristen zitzaiena soinean zutela (Altzola). Laurgainen mantalina beltza eta mantu beltza zeramaten.

Altzola bidean dagoen gurutzearen aurrean, gorputza lurrean zutela, atsedend hartzen zuten gorputzjasotzaileek. Era berean, bildumena piztua izan zedin zaindu eta Paternoster bat erreztatzen zuen apaizak.

Laurgainen gorputza *Landarbide* aurretik pasatzean, hemengoek mahai bat zapi zuriz estalia ateratzen zuten eta bertan gorputza uzten zen. Apaizak Paternoster bat errezatu eta ur eta erramu bedeinkatuz gorputza bedeinkatzen zuen. Beste horrenbeste egiten zen Palazio Etxe parera iristean. Hemendik aurrera apaizaren errezoaz batera hil kanpaia jotzen zen eta hau ez zen ixiltxen eliz atarian, gorputza egurrezko mahai gainean utzi arte. Gorputz gainean gorputzaren aurrekoak argizagia pizten zuen, Altzolan egiten zen bezala. Bi

auzoetan serora edo sakristaua izaten zen eliz ate aurrean mahaia jartzeko ardura zuena eta maiordomoak arduratzen ziren ohizko estandarteak eliz atarira atera eta hildakoari bedeinkazioa bota ondoren beren tokitan uzten.

Elizaren barrenean aurrekoak ogia hildakoaren sepultura, elizako trapu beltz baten gainean uzten zuen. Serorak trapu beltz hori zabaldu eta sepulturarako argizagiak pizten zituen.

Ondoren, goputzaren aurrekoa kandela bat kandeleroan zuela bere lekura joaten zen. Hau gizonak eseritzen ziren aulkien atzean eta emakumeen silen artean, elizaren eskuin aldean izaten zen.

Lehen aulki edo bankuan produko hiru gizonak eseri ohi ziren eta hildakoaren familiako sepultura produko hiru emakumeak.

Lehenik Amabirjina Errosariokoaren Kofradiako meza eman ohi zen. Laurgainen entierroko meza aurrean lau *a timpoko* meza ematen ziren.

Entierroko meza garaian, sakaristauak Errosarioko Kofradiako kajatik, bere garaian maiordomoak erositako kandelak atera eta piztu ahala gizon eta emakumeen artean banatzen zituen. Emakumeek kandela tokian, zuloan sartuta uzten zituzten eta gizonak eskuan piztuta izaten zituzten Jauna harzera joan arte.

Ofrenda garaian emakumeak kandelarekin joaten ziren eta estolari muin eman eta saski edo otar borobil batetan opil luzexka bat *librako opila*; Laurgainen bi librakoa izan ohi zen.

Produko hiru emakumeetako batek gorputzaren aurrekoak eramandako opilaren ofrenda egiten zuen. Entierroko meza ondoren sakristauak kandelak jasotzen zituen.

Opilak, Altzolan, *Apaiz Etxean* erosten ziren eta ofrenda ondoren, sakristauak edo serorak bertara eramaten zituen. Laurgainen bakoitzak bere etxetik eramaten zuen opila.

Meza bukatu eta gero hilerrira *kanposantua* gorputz eramatea egiten zen. Aurrez sakristauak zuloa irekitzen zuen. Altzolan zerbitzu honengatik elizako lurretatik soro koskor bat izaten zuen berak lantzeko; lur horri *sakristau soroa* deitzen zitzaion.

Hilari azken agurra emateko aurrean, bakoitzak eskukada lur hartu muin egin eta *lurra zera eta lur bihurtuko zera* esanez kaja gainean botatzen zuen. Apaizak bere azken bedeinkazioa eta ert-espontsoa botatzen zituen. Jarraian, serora eta sakristauaren etxean, Laurgaingo *Serorategin* hildakoaren familia-koek gizon eta emakumeei, gela desberdinetan, ogia eta ardoa eskaintzan zizkieten. Eskaintza eta ohitura honi Laurgainen *segiziua* eta Altzolan *segizia* esaten zioten; hemen *Serora Etxe* edo *Etxeerrean* eta geroago *Moja-Etxean* egiten zuten.

Altzolan hildakoaren lastairua, jantziak, orrazea, e.a. erre egiten zituzten. Au bidekurutze baten egiten zuten.

Hildakoa ehortzi eta bederatzi egunetara –bederatziurrenean– *ondrako* meza entierroko mezaren errepikapena, izaten zen. Honen ondoren sakristauak edo serorak ozenki hau esaten zuen: *Tokatzen den bezela, hildakoaren etxera bazkaltzera*. Bertara sendikoak eta bailarako etxe bakoitzetik bat edo beste konbidatzen zituzten. Bazkaritan hau izaten zuten: zopa, aza odolkiakin, barbantzuak, haragi egosia, xerrak piparrakin, arroz esnea eta kafea kopakin.

Ondratako bazkari ondoren, familiako batek kuaderno batetan zeinek mezatako zenbat diru eman zuenaren nota hartzen zuen.

Urtebetetzeko meza arte ogiaren ofrenda familiakoek egiten zuten eta ohizko elizkizunetan argizagiak *bildumenak* edo *pildumenak* piztuta izaten zituzten. Apaizak hala bazegokion, errespontsoak ateratzen zituen eta urteko zegoenak apaizaren bonetean dirua uzten zuen.

Azkenik elizako trapu beltza sakristauari edo serorari itzultzen zitzaion.

Haize handiko eguna, anima txarren heriotza esan ohi zen. Altzolan eta Laurgainen egun haizetsuetan norbait hiltzen bazen, honako hau entzungo zen: *Eskribau zaharren bat hil dek* edo beste hau: *Errotari bat hil dek*.

Heriotzarekiko aipatu ohitura hauek duela hirurogei bat urte arte iraun dute¹⁹.


19. Altzolan (Gipuzkoako Aiako bailara): Antonio Argote Agirre, 84 urte; Juliana Argote Agirre, 77 urte; Silberio Uranga Argote, 52 urte eta Jose Antonio Uranga Artola, 85 urte. *Arriarte* baserrira 1987ko Urrian, Azaroan eta Abenduan.

Laurgainen: Joakin Alustiza Telleria, 71 urte eta Maria Isabel Zuloaga Azkue, 62 urte. 1987ko Urrian, Azaroan eta Abenduan *Jauregi Etxera* eginiko ikustalditan. Salbadora Iruretagoyena Eizagirre, 77 urte eta Maria Lizaso Iruretagoyena, 38 urte. *Orbelaun* baserrira 1987ko Azaroaren 8an eta 19an. R. Zubimendi Zinkunegi, 71 urte eta Tomas Zubimendi, 67 urte. *Landarbide* baserrira 1987ko Azaroaren 14ean, 19an eta 24ean.

Zarautzen: Simon Uranga Azpiazu –72 urte– eta Jesús Santiago Uranga Manterola –38 urte– «Vista Alegre» auzoa; *Aiamendi* kalea, 4. 1987ko Abenduaren 5ean eta 13an.

Apendizea

LAURGAINGO «SAN ANTONIO» HERMANDADEKO ARAUTEGIA. AIA²⁰



20. Laurcaingo Jauregi Etxeko Artxiboa.

(Las modificaciones hechas en las fechas de 31-3-1946)
están de acuerdo con lo que está escrito en el original de la Sociedad)

Acuerdos o documentos de la hermandad

San Antonio

En la Universidad de Aya, a diez y ocho de Septiembre de mil novecientos veintiseis, reunida en sesión privada, los que suscriben Julian Monterola, Presidente del caserío "Bizcarri", Francisco Gonzalez del caserío "Sturresion" y José Arriaga Agote del caserío "Lancharbide-xarba", ascalos, respectivamente, Silvestre Zubimendi de "Lancharbide-terri", Miguel Itaguirri Monterola de "Erlacua", Juan Francisco Monterola de "Sarrula", José Agustín Mirralde de "Serraf", Eganacio Aramburri de "Reista-terra" y José Antonio González de "Reista-guicoa", vecinos del barrio de Laurgain, término municipal de esta dicha Universidad de Aya, han acordado constituir una hermandad o sociedad cooperativa denominada "San Antonio", para los casos de accidentes de muerte o enfermedades que tuvieren los ganados vacunos de que son dueños suscribitos, bajo las condiciones siguientes:

1.ª Esta hermandad será para toda persona que desee tomar parte en ella. La duración es ilimitada y solo podrá deshacerse por mayoría de la junta.

2.ª Cuando un socio de esta hermandad, sea en cualquier caso o lugar, sea por accidente u otra enfermedad cualquiera, se reparará la carne a

11.º de fijación en feria 31-3-1946)

(Cuando) se sacrifique un ganado la piel queda para el ^{prop. not. excto.} partes iguales incluso la piel, en proporción de ^(de aya) carneros de ganado que tenga cada uno de los contratantes, abtinando al perjudicado, como en una centésima ^(de aya) menor por salir al lo que rige en la feria; excepción hecha de las vacas de leche o primarias.

3.º Cuando por causa de la enfermedad, no se pueda aprovechar la carne de la res sacrificada, deberán basarse los comisionados, sujetándose siempre al precio que rige en la feria y se le abonará al dueño de dicha res, el valor que estos aprecien con una rebaja de cinco por ciento.

4.º Cuando se trata de sacrificar una vaca de leche o primaria, tendrán los comisionados conforme al precio que rige en la feria y se le abonará al perjudicado el precio que estos fijen, quitando obligatoriamente todos los que constituyen esta sociedad, a dar conocimiento a la Comisión, tan pronto como observe alguna novedad en su ganado, debiendo abonar el precio que entonces se fije, en caso de que hubiere que sacrificar. Para estos efectos se considerarán primarias desde el primer día de su primario y de leche hasta un año después de haber parido.

5.º Cuando alguno de la sociedad comprare un ganado nuevo, hará conocimiento a los comisionados antes de los nueve días para examinarle y para señalarle con los miembros de la A.º en el caso de ser y en caso de que el juicio de la Comisión no reúna las condiciones para admitirla en la sociedad el riesgo correrá a cargo del dueño sin derecho de la hermandad a ninguna bonificación.

6.º Si algún socio de esta hermandad comprare un ganado se prueba por determinarse tiempo, se le abonará el valor de lo que tenga derecho a cobrar

31-

Inscripción
provinc.
Fecha
31-3-1946

del vendidor, según las condiciones del trato, siempre que se sacrificó dentro de dicho plazo.

7.º Las terneras hasta los nueve meses, si a tornan ciento treinta peditas, siempre que estas se hallen cubiertas de pelo y una vez cumplidos los nueve meses, si se muere por mal parto u otra enfermedad cualquiera, hasta dos días después de haber nacido, se abornaran ciento treinta peditas, quedando en detrimento sujeta a la tasación de los comisionados y se abornará el valor que esta apreciación con una rebaja de cinco por ciento. La carne metida en la piel, se repartirá ~~entre~~ a partes iguales por balera de ganado, quedando las terneras para el dueño de la ra.

8.º Para abornar un ganado en la sociedad, deberá estar señalada con las iniciales "S.A.", por las cuales no tendrá ~~ningún~~ derecho a reclamación alguna.

9.º Cuando se vende un ganado fuera de la hermandad, sea que haya vendido a prueba o en cualquier otra que sea la condición de su venta, no tendrá por las desgracias de este, derecho a ninguna bonificación, por la parte de la hermandad.

10.º Si apareciere entre el ganado de la hermandad, una enfermedad contagiosa, los comisionados tendrán autorización para tomar las medidas que crean oportuna para evitar el contagio, siempre por mediación del Sr. Veterinario y si alguno de la sociedad se oponiere al procedimiento de ellos, perderá todo derecho a la ayuda.

11.º Cuando un socio desea separarse de esta hermandad, deberá dar parte al precedente de la misma, con un mes de anticipación bajo la condición de que haya completa sanidad entre el ganado de la misma, pues base de que haya ~~alguna~~ de la enfermedad, se

haya repararle, que dando en todo caso el lugar a salidas de parte que le correspondia jagar si ocurriere un accidente sobre los treinta dias es con-
fin del en que haya solicitado su separacion.

12.º Para los efectos de este Reglamento se sujetaron al dictamen de Don Julian Garcia Veterinario con-
Rarcon, de miemro que cuando la comision era oportu-
no llamar a otro particular. El gasto de este se paga-
ran a partes iguales por cada uno.

13.º Todos los socios quedan obligados a cumplir los acuerdos que tome la junta directiva y del comisiona-
do. Si no lo hicieren podran ser sancionados de la Sociedad, a todos
aquellos que no se satisfagan en puntualidad sus cues-
tas, los que maltraten su ganado o que merezcan
sancion por otras circunstancias.

14.º Para la buena marcha de la Sociedad, se convocara
dos veces al año en junta general, y nombraran
en cada reunion nuevos comisionados, cesando en
sus cargos los anteriores.

El no habiendo mas que acordar se da por termi-
nada del presente y se acuerda permitir a la asista-
cion de la Sociedad Comision Provincial de Guipuzcoa
para el tener de beneficios que para los hermandades
contra accidentes de ganado vacuno concede el Regla-
mento de Cortes de Guipuzcoa. Fecha y lugar
de arriba firmados.

En el 5.º de mayo de 1855
Don Beron de Alava